

hh
hik hasi

Geopolitikan kokatzen
Eider Garde
Jaso musikalak hamar urte
'Euskara aurrera' ekimena
Korczak-en pausoei jarraituz
Olarizuko lorategi botanikoa
Naroa Iglesias Lobo



HAZI HEZIREN
10 URTEAK OSPATZEN

AURKIBIDEA

GAIA / 10

GEOPOLITIKAN KOKATZEN

Ukrainako gerraren ondorioz elkartasun uholde handia sortu da Europan, eta baita Euskal Herrian ere. Horrekin batera, hainbat galdera piztu dira herritarren eta ikasleen artean: gure elkartasuna norekin eta noiz gauzatzen da? Ukrainarrekin bai eta yemendarrekin ez? Galdera horietatik abiatuta geopolitikaz eta pentsamendu kritikoa lantzeko aukerez hausnartzen da erreportajea.

ELKARRIZKETA / 18

EIDER GARDE

Greba mugagabea daude Nafarroako hezitzaileak, 0-3 Plataformak deituta. Ratioen jaitsiera eta soldaten igoera eskatzen dute. Eider Garde Kattuka haur eskolako zuzendaria da Plataformako eleduna. Nafarroako Gobernuak mahai negoziatzailea deitu eta aldarrikapenei kasu egin arte jarraituko dute protestan.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943 37 14 08 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostitzu, Olatz Lasagabaster.

Erredakzio batzordea: Mikel Agirrezabala, Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe

Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx eta Xabier Tapia. **Administrazioa:** Uxue Ugartemendia. **Azaleko argazkia:** Jon Urbe /Foku **Diseinua:** Grafik.

Maketazioa: Xangorin.

Inprimategia: ANTZA S.A.L. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2022-4-28). Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko edukiak baliatu eta zabaldu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta soilik baldintza beretan eginez gero. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

5 EDITORIALA
Zorionak HAZI HEZI!

10 GAI NAGUSIA
Geopolitikan kokatzen

18 ELKARRIZKETA
EIDER GARDE
"Arautzen gaituztenek ez dute sinesten 0-3 zikloa hezkuntza ziklo bat denik"

24 ESPERIENTZIAK 1
Hamar urte ikasleengan
"benetan" sinesten

28 EKARPENAK
HAZI HEZIK hamar urte

30 EKARPENAK
Hezkuntza Akordioa:
aniztasuna sustatu euskal
hezkuntza sistema propiorako
bidean (I)

34 AHALDUNTZE ESKOLA
Korczak-en pausoei jarraituz

36 GALDEIDAZU
Zergatik da beharrezkoa
'Euskara aurrera' ekimena?

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA
Olarizuko lorategi botanikoa

42 ATZEKO ATETIK
Naroa Iglesias Lobo



Zorionak HAZI HEZI!

editoriala

GURASO ETA HEZITZAILE GUZTIEI BABESA ESKAINTZEA IZAN DA GURE HELBURUA. EPAIRIK GABE, JUZKURIK GABE, DOGMARIK GABE, ZAMARIK GABE ETA ERRURIK GABE BEREN BIDEA EGIN DEZATEN.

Maiatza kandelei putz egiteko hilabetea bihurtu zaigu aurten **Hik Hasi** egitasmo pedagogikoko kideoi. Urteurren berezia ospatzen ari gara: **HAZI HEZI** aldizkariaren 10. urteurrena. Ilusioz eta pozez ari gara ospatzen hamargarren urtebetetzea. Pozgarria baita beti euskarazko komunikabide espezializatu batek urteak betetzea. Familien eta hezitzaileen ondoan egotea izan da **HAZI HEZI**ren egitekoa azken hamarkada honetan eta guztiei hazieran eta heziketan laguntzeko kalitatezko tresna eskaini nahi izan diegu. Laguntzeko asmoz eta presiorik eta exigentziarik gabe, guztiei babesa eskaintzea izan da gure helburua. Epairik gabe, juzkurik gabe, dogmarik gabe, zamarik gabe eta errurik gabe euren bidea egin dezaten. Jakin badakigu familien egitekoa ez dela erraza eta galbahe on batetik pasatako informazioa eskaini nahi izan dugu aiez ale.

Orain, indarberrituta eta itxuraldatuta dator



HAZI HEZI. Formatua aldatu dugu eta eramangarriagoa, arinagoa eta ikusgarriagoa egin dugu 40. zenbakia. Alboan izan ditugun bidelagunekin ospatzen ari gara urtebetetze eder hau eta Donostiako Aquirumean aurkezpen ekitaldia egin ondoren, Adunan (Gipuzkoa) izango dugu hurrengo hitzordua maiatzaren 29an. Festa egingo digu bertan eta familiarekin eta harpideekin batera egingo diegu putz kandelei.

2012an ekin zion bideari **HAZI HEZI**k, Joxe Mari Auzmendi **Hik Hasiren** sortzailea zenaren ametsetako bat egi bihurtuta. Bere proiektu kutuna izan zen **HAZI HEZI** eta hamar urte eman ditu hazten eta hezten. Joxe Marik ereindako landare kutuna zaintzen eta ureztatzen jarraituko dugu aurrerantzean ere, urteak betetzen jarrai dezan. Gure ondoan ditugun pertsona guztien laguntza ezinbestekoa izango horretarako, honaino iristeko izan den moduan eta horiek guztiak ere zoriondu nahi ditugu: eskerrik asko guztioi eta... Zorionak!

“Ni ez nintzen euskaldundu hizkuntzagatik bakarrik, kultur zaletu nindutelako ere euskaldundu nintzen, euskal kulturara hurbilarazi nindutelako ikastolan”

Iratxe Retolaza

HILEKO IRUDIA





MUSUKORIK GABEKO AURPEGI BERRIAK

Azkenean iritsi da Euskal Herriko eskola guztietara musukorik gabe ibiltzeko momentua. Pandemiaren egoera hobetu ahala, neurriak malgutzen joan dira, eta irakasleek, irakasle ez diren langileek eta haurrek beste herritar eta espazio batzuek baino denbora gehiago itxaron behar izan badute ere, musukorik gabe egon daitezke gelan, korridoretan eta jolastokietan. Hori bai, eskola-garraioa erabiltzen dutenek musukoa eskura eduki beharko dute bidaia horiek egiteko.

Begiez gain, aurpegi osoak ikusten dizkiote elkarri orain; ahoa, hortzak eta sudurra. Irribarreak eta keinuak. Ikasturte hasieratik edota duela bi urtetik musukoarekin ezagutu duten irakasleari irribarrea ikusi diezaiokete ikasleek eta irakasleek ere haurren aurpegiak orain ezagutu dituzte. Eta... nola ez, ez da gauza bera harremanetarako, eguneroko jardunerako eta ikasteko zein irakasteko.

Argazkia: Hik Hasi

Ataungo Joxemiel Barandiaran
eskolan, 2022ko maiatzaren 13an

HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

PAI PROGRAMA ZABALTZEKO LEGE PROPOSAMENA ONARTU DUTE

PAI, ingelesez ikasteko programako 350 irakasleen lanpostuak egonkortzeko lege proposamena onartu du Nafarroako Parlamentuak, PSNren proposamenak Navarra Sumaren aldeko botoak jaso ondoren. Parlamentuko gainerako taldeek segurtasun juridikorik ezari buruz ohartarazi dute. Izan ere, proposamenak zuzeneko eragina izango du funtzionarioen kontratazio prozesuan: lan deialdian ingeleseko C1 maila eskakizun bihurtuko dute eta ingelesa menperatzea baldintza orokorra izango da irakasleentzat. Espainiako 276/2077 Errege Dekretuak, ordea, ez du halakorik baimentzen.

Horrez gain, PAI programako lan deialdian plaza lortzen dutenak funtzionarioak izango dira, baina soilik



Nafarroan lan egiteko aukera izango dute, ezingo baitute beste erkidegoetako lekualdatze prozesuetan parte hartu. Gaur egun 116 ikastetxetan dute

PAI eredia baina harago joan nahi du Nafarroako Gobernuak: herri gehiagotara zabaldu nahi dute eta eredu linguistiko bihurtu nahi dute.

IKASLEAK ETA IRAKASLEAK DIGITALKI GAITZEKO PLANA AURKEZTU DU EUSKO JAURLARITZAK



2022-2024 aldirako Euskal Hezkuntza Sistemaren Eraldaketa Digitalerako Plana aurkeztu du Eusko Jaurlaritzak. Helburua ikasleen eta irakasleen gaitasun digitalak bultzatzea da eta

202,6 milioi euroko inbertsioa egingo dute. Hezkuntza teknopedagogikorako jauzia egin nahi dute eta ikaslea erdigunean jarriz, trebetasun digitalen garapena indartzea eta hezkuntza

sistemaren teknologiak "eraginkortasunez" erabiltzea lortu nahi dute.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak Google-rekin sinatu duen akordioak hautsak harrotu ditu: hitzarmenak hezkuntza ituna urratzen duela adierazi dute EH Bilduk eta Elkarrekin Podemos-IUK. Hezkuntza Sailak akordioa lortu du Google-rekin ikastetxeetan *Google Workspace for Education* zerbitzuak erabiltzeko. Zerbitzua doakoa da, baina ikasleen eta irakasleen datuak multinazionalaren esku geldituko dira epe batez. Jokin Bildarratz Hezkuntza sailburuak ukatu egin du akordioak ituna urratzen duenik, eta "erronka teknologikoei, etikoei eta sozialei" erantzun behar zaiela adierazi du.

HIZPIDE IZANGO DA

UDAKO TOPAKETAK: IZEN-EMATEA ZABALIK

Uztailaren 4, 5 eta 6an izango dira **HIK HASI**k antolatutako Udako Topaketa Pedagogikoak, Donostian. 31 ikastaro izango dira aukeran eta izen-ematea zabalik da dagoeneko. 22. Udako Topaketetan Lehen Hezkuntzara datorren eraldaketari begirako ikastaro berezia eskainiko du HIK HASIk: *Lehen Hezkuntza eraldatzen* izenekoa. Gainerako ikastaroetan landuko diren gaiak askotarikoak izango dira. Izen-ematea eta informazio gehiago: www.hikhasi.eus atarian.



‘PUNTTUKA’ METODOA, BRAILLEA EUSKARAZ

Braillea euskaraz irakurtzeko eta idazteko lehen metodoa aurkeztu du Nafarroako Gobernuak Hezkuntza departamenduak: *Punttuka*. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendutako materiala tintaz eta Braillez osatu dute, eta Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroko (CREENA) Ikusmen Taldeak egin du. Hezkuntza-inklusioan urrats garrantzitsua emanez, ikusmen-urritasuna duten euskal hiztunen alfabetatzea erraztea da helburua. Fonemak bertso eta olerki bidez aurkezten dituzten metodo berriak. Materiala "berritzailea eta inklusiboa" da eta ikaskideekin partekatzeko aukera ematen du, "benetako inklusioa" sustatzeko. Lehen irakaslearekin soilik ikasten zuten ikusmen urriko ikasleek baina aurrerantzean, materiala lagunekin partekatzeko aukera izango dute.

‘EUSKARA AURRERA’ MANIFESTAZIOA

Maiatzaren 21ean Donostian *Euskara aurrera* lelopean izango den manifestaziora joateko deia egin dute euskalgintzako hamabi eragilek. Euskarari "herri bultzada berri bat" emateko deia egin dute Euskalgintzaren Kontseiluak, Euskaltzaleen Topaguneak, Euskal Herrian Euskarazek, Jakinek, Elhuyarrek, Pantailak Euskarazek, Bai Euskararik, Maizpide euskaltegiak, Ikastolen Elkarteak, Uemak, AEK-k Elkarrek eta **Hik Hasik**. "Argi



izpiak" ikusten badira ere, euskararen etorkizuna bermatuta dagoenik ezin dela esan adierazi zuten Donostian

egindako agerraldian eta beharrezkoa dela "euskaltzale guztiek aurrera urratsa" egitea.



Oraingoa desberdina izaten ari da: Yemengo edo Maliko gerrak ez bezala, Ukrainakoa gertuago bizitzen ari da Europan. Halabeharrez, geografikoki gertuago kokatua dagoelako; baina ez horregatik soilik, baita Europar Batasuneko herrialdeen jokaera desberdina delako ere. Europa gerran dago, Ukrainan esku-hartzen ari da beste herrialdeetan ez bezala, laguntza humanitarioa emanez eta armak bidaliz. Agerikoa, azkarra eta komunikabideetan azpimarratua izan den laguntza horrek, ordea, beste geruza batzuk nabarmendu ditu: zergatik ez zaie laguntzen ukrainarrei bezala palestinarrei, sahararrei, siriarreri edo yemendarrei? Lehen eta bigarren mailako errefuxiatuak eta etorkinak al daude? Galdera kritikoak ernatu dira herritarren eta ikasleen artean; aitzakia ona geopolitikaz hitz egiteko eta pentsamendu kritikoa lantzeko.

GAIA: GEOPOLITIKAN KOKATZEN

Munduko gatazkak ulertzeko gakoak

nondik inora justifikatu ezin daitekeen gerra bizitzen ari dira Ukrainan. Eta gerra guztietan bezala, herri-
tar askok euren etxeak utzi eta alde egin behar izan dute. Europako herrialdeek esku zabalik hartu dituzte ukrainar errefuxiatuak: autobusetatik jaitsi direnean har-
rera egin zaie, etxebizitzak prestatu zaizkie eta umeak eskolatuak izan dira. Baita Euskal Herrian ere.

Eskuzabaltasun horrek, ordea, galdera ugari sorrarazi ditu: zergatik orain eta ukrainarrekin bai eta magrebtarrekin eta afrikarrekin ez? Zergatik Ukrainako gerraren gaitzespen irmoa Europako estatuen eta erakundeen aldetik eta ez Yemengo edo Maliko gerrena? Armak bidaltzea ote da laguntzeko modurik egokiena eta bidezkoena? Zer zerikusi daukate munduko potentziek eta nola kokatu dira gerra honetan eta gainerakoetan?

Asier Blas EHUko Politika eta Administrazio Zientzia Saileko irakasleak argi dio galdera eta kontraesan horien jatorrian zer dagoen: “Gu, europarrok, gerran gaude oraingoan, Ukrainakoan; besteetan ez, eta hori

da diferentzia. Zeren posizio bat hartzea zilegi da, baina oraingoan Europarena gehiago izan da, esku-hartzea da. Horregatik ulertzen da errefuxiatu batzuei paperak ematea automatikoki eta beste batzuei ez; Ukraina armatzea eta Josep Borrellen adierazpenak 'ezin da eskatu gatazka bake bidetik konpontzea eta momentu honetan gurekin ez daudenak gogoratuko ditugu'. Gerrako hitzak dira”.

Bilboko metroan Ukrainako bandera jarri dute, Palestinakoa edo Yemengoa ez dituzte inoiz jarri, Siria, Libia eta Irakekoak ere ez. Euskal Herriko ikastetxeetako ikasle-
leen artean egoera horiek galderak sorrarazi dituzte. Ez dute gerrarik nahi inon, laguntzeko premia ikusten dute eta prestasuna ere badute, baina ez dute ulertzen zergatik batzuei bai eta beste batzuei ez. Beasaingo BHIko ikasle den Aya El Fatimi Lhasnaouik ondo islatu du kontraesan hori Euskara ikasgaiaren egindako lan batean. Batxilergo-
ko 2. mailan dabil eta gai baten gaineko ahozko aurkezpen bat egin behar zutelarik, El Fatimi Lhasnaouik *Eurozentrismoaz* izenburua jarri zion ondorengo hausnarketa hau egin zuen:

Eurozentrismoaz

Hainbeste miseria eta gerraren ostean, ea zergatik dauden horrenbeste errefuxiatu harrera mugagabea galdetzen diot neure buruari. Ez dut ulertzen zein den Mediterraneoan hildako baten eta Kieven hildako pertsona baten artean dagoen aldea. Baina horren erantzun garbia da orain errefuxiatu horiek ilehoriak direla eta begi urdinak dituztela.

Oso interesgarria iruditzen zait Europako herrialdeek ukrainar zuri guztiei ateak nola zabaltzen dizkieten ikustea, beste herrialde batzuetako errefuxiatu batzuk Mediterraneoan itotzen edo Turkian ez atzera eta ez aurrera utzita, ezin dutelako 'miseriarik' sartzen utzi haientzako lekurik ez dagoelako aitzakiarekin. Elkartasun bitxi honek Mendebaldeko munduaren hipokrisia erakusten du, eta gizarte honetan pertsona zurien pribilegioa, arrazakeria eta eurozentrismoa nagusi direla erakusten digu.

Gainera, Poloniak, iaz bielorrusiar askori herrialdea zeharkatu eta bere mugan hiltzen utzi nahi izan zituen herrialdeak, ukrainar zuriak 9 harrera zentro irekitzea erabaki du orain. Eta zuria diot Ukrainako agintariek ez dietelako uzten atzerriko jatorria dutenei edo zuriak ez direnei ebakuazio garraioetan sartzen. Gauza bera gertatzen da Polonian eta Hungarian, beste jatorri bat dutenei ez baitiete sartzen uzten.

Berdin gertatzen da Estatu Batuetako politika xenofoboarekin. Mexikoko mugan familia batzuei ez zieten sartzen utzi, baina, orain, ukrainar zuriak esku zabalik hartzen dituzte. Adibideak, zoritxarrez, askoz gehiago ere badira.

Kontuan izatekoa da zenbateraino deshumanizatzen ditugun Afrikatik edo Asiatik datozen pertsonak beren herrialdeko egoera penagarrietatik alde egin nahi dutelako. Beraz, argi dago zuria eta europarra ez den jendeak ez duela ia baliorik zuri, europarra eta, ziurrenik, kristaua den jendearekin alderatuta.

Dudarik gabe, Ukrainan gertatzen ari dena oso larria eta kaltegarria da; momentu honetan migrazio jario oso garrantzitsuak daude, baina aipatzekoa da pertsona batzuk besteak baino gehiago baloratzen ditugula eta batzuei beste batzuei baino garrantzi handiagoa ematen diegula.

Era berean, ukaezina da, askotan, munduan zehar hedatuta dauden sare sozialek eta hainbat komunikabidek gerra batzuei beste batzuei baino arreta handiagoa jartzen dietela, guztiek garrantzi bera izan beharko balute ere. Ez zaigu axola behar larruzalaren kolorea, erlijioa edo horrelakorik pertsona bat migratzen ari denean, beste guztien laguntza bera merezi du eta.

Ez dago errefuxiatu on edo txarrik, VOXek esaten duenaren kontrara. Bizi-proiektu hobe baten alde sufritzen ari diren pertsonak dira errefuxiatuak, dela gerragatik, dela bere herrialdeko egoera ezegonkorragatik edo beste edozein arrazoiengatik. Atlantikoan ez ezik, Mediterraneoan ere bai. Ez dago bestea baino gehiago balio duen bizitzarik. Ukrainako errefuxiatuek Afganistango, Palestinako, Siriako eta Etiopiako errefuxiatuen oso antzeko egoerarengatik egiten dute ihes: kasu honetan **gerragatik**.

Bukatzeko, eta esaten ari naizena zalantzan ez jartzeko, komunikabideetan kazetari batzuek esan berri dituzten astakeriak aipatuko ditut:

- *BBC News* egunkarian: "Hau ez da Irak edo Afganistan, pertsona hauek (ukraniarrei erreferentzia eginez) nahiko zibilizatuak dira".
- Fiskal ukrainar batek: "Zaila da egoera hau ikustea, begi urdinak eta ile ilehoria duten europar jendea ikusten bonbardatua izaten".
- *Al Jazeera*ko kazetari batek: "Hauek, klase ertaineko pertsona oparoak dira, ez Ekialde Hurbiletik edo Afrika iparraldetik ihes egiten saiatzen diren errefuxiatuak. Zure ondoan bizi daitekeen Europako edozein familia dirudite".

GAIA: GEOPOLITIKAN KOKATZEN



Geopolitikaren ardatzean

Horrelako gatazka bat sortzen denean, aitzakia ona dela dio EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko irakasleak geopolitikaz pixka bat ikasteko eta pentsamendu kritikoa lantzeko. “Geopolitika zera da: gaur egun eta betidanik munduan potentzien artean egon den lehia beraien eragin esparru bat segurtatzeko”. Eragin esparru hori desberdina izan daiteke herrialdearen arabera. AEB Amerikako Estatu Batuen kasuan mundu osoa kontrolatzeko asmoa izan du beti, eta beraz, haientzat bere eragin esparrua mundu osoa da. Beste potentzia batzuek ez daukate ez gaitasunik ez borondaterik mundu osoa kontrolatzeko, baina bai beren esfera segurtatzeko. Kasu hori da Errusiarena, eta garai batean Sobietar Batasuneko lurraldeak edo errepublikak izandako herrialdeak segurtatu nahi ditu.

Eragin esparruan hainbat arlotan eragin dezakete potentziek, “baina motorra beti da ekonomia”, azpimarratzen du Blas politologoak. “Eta eragin ekonomikoaz hitz egin dugunean hiru gauza dira geopolitikan edo borroka inperialistan: lehengaiak, eskulana eta merkatuak”.

Lehengaiak: momentu honetan nazioarteko borroka hegemonikoan bi potentzia nagusi daude, AEB eta Txina, eta lehia ekonomiko horretan inportantea da lehengaien

kontrola, Blasek dioenez. “Lehengaien kontrolak produktioa merkeago izaten laguntzen du. Esate baterako, Alemaniak gatazka honekin epe ertain edo motzera aurreikusitako gasa baino gutxiago jasoko du Errusiatik eta ondorioz kompetitibitatea galduko du; gasa eta energia garestiago ordainduko ditu, ondorioz bere produktuak garestitu egingo dira eta, beraz, kompetitibitatea galduko du AEBren eta Txinaren mesedetan. Txinak dagoeneko Errusiarekin sinatu du gasbide berri bat eraikitzeko proiektua”. Garbi dago Errusiak bere gasaren eta petrolioaren zati gero eta handiagoa bideratuko duela Asiara eta horrek eragina izango duela Europan. “Lehengaien kontrola oso inportantea da beti. Gogoratu besterik ez dago AEBk Irak inbaditu zutela. Han ez zegoen inolako gatazkarik bizilagunekin, ez gatazka nazionalistarik; arrazoia ekonomikoa izan zen, lehengai, petrolio”.

Eskulana: potentziei eskulan garatua izatea interesatzen zaie eta horretarako etorkinak hartzeko arazorik ez dute izaten. “Munduan zehar mugitzen diren etorkin asko hezkuntza maila altua dutenak dira. Jatorrizko herrialdeetan inbertsio handia egiten dute haien hezkuntza hobetzeko eta gero herrialde garatuera joaten dira lanera. Tendentzia hori ikusten dugu Mendebaldean: AEBk edo Europak burmuin horiek xurgatzen dituzte; beste herrialde batzuetan dauden burmuinak herrialde zentral horietara joaten dira”. Errusiak ere espazio post-

GAIA: GEOPOLITIKAN KOKATZEN

Munduko gatazkak ulertzeko gakoak

sobietarreko herrialdeetako herritarrak erakartzen ditu ekonomikoki indartsuagoa delako. Lehen esklabuekin egiten zen modura, egun horrela lortzen da eskulana.

Merkatuak: produktuak saltzeko merkatua behar da eta geopolitikan nagusigoa lortzeko, potentziek ezinbestekoa dute hanka bat gutxienez Eurasian izatea, munduko zentrotzat hartzen den Eurasian presentzia izatea. Une honetan Eurasia asko integratu da ekonomikoki eta merkataritzaren ikuspegitik Txinaren lidergopean. “Gatazka honek merkatuen logika ikusarazteko balio izan du”, Blasek dioenez. “AEBk Eurasian duten hanka bakarria EB Europar Batasuna da eta bere interesetara inguratzen saiatzen ari da, dagoeneko EBren lehenengo bazkide komertziala Txina baita. Hori dela-eta, AEBren helburua Txinaren eragina txikitzea izango litzateke eta horretarako, buruan zerabilen edo darabilen proiektua, gatazka hau baliatuz EBrekin Merkatu Libreko Tratatu berreskuratzea izango litzateke. Horrela AEBtik datozen produktuek ez lukete arantzelik izango eta produktu txinatarrek, aldiz, bai. Ondorioz, AEBk ia 500 milioi pertsonako merkatu bat gatibu hartzea lortuko luke. Errusiaren kasuan gauza bera gertatzen da: Ukrainako merkatua oso garrantzitsua da beretzat, bere produktuen kontsumorako pertsona potentzial handia dagoelako”.

Aipagarria da gerra garaian armen merkatuak hartzen duen indarra. EBko herrialde gehienek gastu militarra igo dute (%2). “Tristeia den arren, gerrek armen eskaiparitate baten antzera funtzionatzen dute salmentarako”, baieztatzen du Blasek. “Gerra honekin, AEBk NATO kohesionatzea lortu du eta denek igo dute gastu militarra. Gainera, denak NATOren estandarreko armak erostera derrigortuta daude eta armagile nagusia AEB da”.

Hiru dimentsio horiez gain badaude borroka geopolitikoan eragina duten beste pare bat. **Dimentsio politikoa** da horietako bat. “Ezin da denbora luzean mantendu nagusigoa indarrez edo ekonomiaren bitartez soilik, ondoren hegemonia politikoa behar du potentzia den herrialde horrek arantzelak berarekin edukitzeko eta ez beste batekin, mailegu ekonomikoak berari eskatzeko eta ez beste bati, hitzarmen ekonomikoak berarekin egiteko eta ez beste batekin...”. Dimentsio politikoa

elikatzeko tresna oso erabiliak dira nazionalismoa eta herrialdearen segurtasuna, besteak beste.

Eta horri lotuta dago **dimentsio kulturala** ere. “Europaren kasuan argi ikusten da AEBen eragin kulturala: ingelesaren zabalpena, Hollywood, Netflix, unibertsitateak... Errusiaren kasuan, errusiera eta errusiar kulturaren eragina antzematen dira”. *Soft power* deitzen zaio nazioarteko harremanetan, botere biguna, mantso doana. “Herritarrak kode kultural batzuk edukitzera ohituta baldin badaude, kode kultural horietan kontsumo modu batzuk daude eta errazagoa da kode berak erabiltzen dituztenen arteko kontsumoa”.

Osagai horiek denak sartzen dira Ukrainako gerran. “Errusiak Mendebaldeak daukan diskurtsoa mimetizatu du. 1999. urtean gertatu zen nazioarteko legediaren haustura lehendabiziko aldiz gerra egiteko, NATOk Jugoslavia erasotu zuenean. NBE Nazio Batuen Erakundeak gerra egiteko zeukan araudia hautsi zen: erasotua izan gabe herrialde bat erasotu zuen. Aitzakia humanitarioa erabili zen, eta gerra humanitarioak hasi ziren. Ondoren, terrorismoaren aurkako gerra prebentiboak etorri ziren eta gero demokrazia ezartzeko gerrak. Orain Errusiak gauza bera egin du: Ukrainak Donbassen egingako ustezko genozidioaren aurrean gerra humanitarioa; ondoren, gerra prebentiboarekin hasi da Ukraina NATO sar ez dadin”. Baina guztiaren oinarrian, esaten ez bada ere, borroka ekonomikoa dagoela gogorarazten du Blasek. “Mozorroto egiten da ideologia humanitarioarekin, demokratikoarekin, nazionalistarekin, desnazifikazioarekin, segurtasunarekin edo dena delakorekin, baina horren atzean zer dago? Lur edo merkatu gehiago nahi izatea. Zertarako? Lehengai eta eskulan gehiago izateko. Zertarako? Merkatu gehiago izateko. Betikora bueltatzen gara, kontua da zer jantzi erabiltzen den hori egiteko”.

Arrazakeriaren gorakada

Horrelako gatazka bat sortzen denean eta aipatutako elementu guztiak hor daudelarik, Blasek dio interesgarria dela ikustea nola azaleratzen den arrazakeria eta xenofobia. Irungo Harrera Sareko Josune Mendigutxiak bat egiten du Blasekin. “Errate baterako, ni joaten ahal naiz

“Geopolitikan motorra beti da ekonomia, eta horren barruan hiru elementu daude: lehengaiak, eskulana eta merkatuak”

Asier Blas, EHUko Politika eta Administrazio Zientzia Saileko irakaslea

GAIA: GEOPOLITIKAN KOKATZEN



zazpi aldiz Irun eta Hendaiako mugara eta ez zait ezer gertatzen; beltzez margotu eta zortzigarren aldiz joaten banaiz, ordea, gelditu egingo naute. Kontrolak arrazistak dira. Segurtasun nazionalagatik eta antiterrorismoagatik dela erraten dute beraiek, baina hemen ez dute terrorista bakar bat ere ikusi. Eta, gainera, zuriak ere izan daitezke terroristak. Kontrolak arrunt arrazistak dira. Profil bakarra dago: beltzak eta magrebtarrak, beste guztiak lasai ederrean pasatzen ahal gara”.

Irungo Harrera Sareko kideek lau urte daramatzate Frantziako estatura pasa nahi duten etorkinei laguntzen: bertara iristen direnean harrera egiten, arropa eta janaria ematen eta informazioa ematen Irungo Udalaren aurreko plazan. Lau urteotan 22.000 pertsona iritsi dira Irunera. “Ukrainako gerran egiten ari direna ikaragarria da, hori ezin da ukatu. Baina beste etorkin hauekin berdin segitzen dute, ez dute ezer egin, hauei ez zaie kasurik egiten. Gerra guztiak dira txarrak, ez Ukrainakoa bakarrik. Udalean orain jarri dute ‘gerrarik ez, no a la guerra’ kartela; aurretik ez”, dio minduta Mendigutxiak. “Korridore humanitarioak bai, baina denentzat. Ukrainan ere badira etorkinak: errumaniarrak, ijitoak, beltzak, indiarrak... eta ez ditugu ikusi”. Munduan etorkin eta errefuxiatu guztiek egiten dute ihes beharrak bultzatuta, Afrikako etorkinek ere bai: “Beraiek etxetik ez dutela joan nahi jakin behar dugu”, dio Mendigutxiak. “Ez dute nahi, egoerak behartuta alde egiten dute: haien herrialdean gerran daudelako, aldaketa klimatikoaren ondorioz ez

daukatelako janaririk eta ezer egiteko aukerarik, emakumeak 13-14 urterekin ezkontzen dituztelako ondoko aitona zaharrarekin eta ihes egiten dutelako umeekin, amek alabei ablaziorik ez egiteko alde egiten dutelako, gizon batzuk euren orientazio sexuala ez delako errespetatua eta euren bizia arriskuan dagoelako eta abar”. Irungo Harrera Sareko kideak ozen dio guztiok dugula gure bizia nahi dugun tokian egiteko eskubidea eta horrexegatik jarraituko dutela Irunera iristen diren etorkinei eta errefuxiatuei laguntzen.

Gerra guztien aurkako oihua

Munduko biztanle askok pairatzen dute hori dena geopolitikaren izenean. Horregatik uste du Mendigutxiak ikastetxeetan egiten dituzten sentsibilizazio hitzaldiek eta Irunera bisitan etortzen diren ikasle taldeek ikusten dutenak emaitzak izan ditzakeela. “Guk hori egin dezakegu, jendeari eta ikasleei zer gertatzen den kontatu eta kontzientziatu. Irunera etortzen diren ikasle taldeek bertatik bertara ikusten dituzten etorkinak eta Bidasoa zeharkatzerakoan atzera nola botatzen dituzten ere ikustea tokatu zaie batzuei. Nik beti erraten diet ikasleei mundua euren eskuetan egongo dela. Zerbait ikasten baldin badute eta zerbait geratzen baldin bazaie buruan, hemendik 10-20 urtera agian aldatzen ahal da zeozer.” Eta ez migrazioaren kasuan soilik, baita ekologismoan eta gainerako gaietan ere”. Esperantza haziak ereiten jarraitu beharra dago.

Pentsamendu kritikoa lantzeko tresnak

Ikasleekin pentsamendu kritikoa lantzeko modu bat baino gehiago egon daitezke eta horien artean daude ondorengo aukerak.

Galderak egitea: normalean galderak formulatuta ematen dira, egiten dituenak nahi dituen moduan formulatuak. Kritikotasuna lantzeko hobe da erantzunak jaso beharrean galderak egitea, horrela beste modu batetara ikus daitezkeelako egoerak eta gatazkak. Galderetatik hasi eta irits daiteke geopolitikara, ez alderantziz:

- Zergatik dauka gerra honek daukan oihartzuna eta beste batzuek ez? Zergatik errefuxiatu batzuek automatikoki lortzen dituzte paperak eta beste batzuek ez?
- Zergatik piztu da horrelako histeria Europan? 2014n ere gerra bat piztu zen Ukrainan, soldaduskara joan nahi ez zuten gazte askok ihes egin zuten, bazekitelako soldaduskara joanez gero Donbasseko gerrara joan beharko zutela. Bi milioi errefuxiatu egon ziren Donbasseko gerran eta 15.000 hildako. Nola da posible orain sekulako alarma piztu izana eta 2014an ez?
- Zer espazio dute beste gerra eta gatazkek hedabideetan? Egundagoen drama humanitariorik handiena Yemengoa da, 500.000 hildakorekin.
- Nola tratatzen dira beste gerrak eta gatazkak?
- Non dago hildako gehien? Ukrainian ala beste lekuren batean? Egunean hildako kopuru gehiago daude Yemenen, Mexikon edo beste gatazka batzuetan.
- Zergatik gaude gerra honetan zentratuta eta zergatik armatu behar ditugu ukrainarrak eta ez beste batzuk? Zergatik ez ditugu armatzen palestinarrak? Eta sahararrak? Eta yemendarrak?
- Zer koherentzia daukagu? Erasotuak daudenak armatu behar al ditugu? Kasu guztietan hori egiten hasiz gero, ez litzateke bukatuko, asko baitaude erasotuak mundu osoan zehar.
- Armak emateak ez al du egoera arriskutsuago bilakatzen? Ez al gaitu gerturatzen bonba nuklearren erabilerara? Ez al gaitu gerturatzen gerra betiketazera edo epe luzeko bilakatzerara? Ez al gaitu gerturatzen Ukraina Txetxenia bihurtzerara?
- AEBn dorre bikiak bota zituztenean zer erantzun artikulatu zuten? Zertarako?

Beste komunikabide batzuk irakurtzea-ikustea-entzutea: oso interesgarria da gerraren parte ez diren herrialdeetako komunikabideak irakurtzea. Errusiari zigor ekonomikoak jarri dizkietenak Kanada, AEB, Zelanda Berria, Australia, Japonia eta EB izan dira. Gainerako herrialdeek ez dizkiote jarri eta pentsamendu kritikoa lantzeko era bat izan daiteke hango komunikabideak jarraitzea; India edo Pakistango egunkariak irakurri eta gerra hau nola esplikatzen duten ikustea, adibidez.

Ikus-entzunezkoak ikustea: *Gerra hemen hasten da, Ongi etorri errefuxiatuak* eta beste hainbat dokumental, youtubeko hainbat bideo...

Kontinenteen mapa: geografikoki Europa Eurasian dago, Asiako mapa ikusi besterik ez dago. Zergatik existitzen da aparteko kontinente bat bezala? Eraikuntza politiko bat da, munduko herrialde desberdinetan kontinenteak modu desberdinean zenbatzen dituzte: batzuek bost, beste batzuek sei, zazpi...

Paralelismoak egitea: egokia da egoerak konparatzea eta paralelismoak egitea. Errusiak Ukrainan egin duen inbasioaren aurrean EBren jarrera zein izan den ikustea eta AEBk Irak inbaditu zutenean zein izan zen. Zer egin zaie errusiarrei? Eta estatubatuarrei? Zigorrik jarri zitzaie? Jazarpenik pairatu zuten? Errusiarrei egin zaien guztia egin izan balitzaie estatubatuarrei, zer gerta zitekeen? Zein izan zitekeen haien erantzuna? Gauza bera Jugoslaviako gerran. Zein izan zen orduan Europaren jarrera eta zein da orain?

Ikuspegi historikoa: interesgarria da eskulanaren bila-kaera nolakoa izan den ikustea. Garai batean eskulabuak hartzen ziren, gerora egoera garatzen joan da eta gaur egun etorkinak hartzea bada eskulana hartzeko modu bat, zaurgarriak ez diren etorkinak, kasu honetan.

Liburuak: geopolitikari buruzko Sir. Halford Mackinder-en liburuak.



zientzia azoka



Ekainaren 2tik 5era,
Bilboko Areatzan

- ✓ Gazteen proiektuak
- ✓ Tailerrak
- ✓ Profesionalen standak

10. edizioa



zientzia-azoka.elhuyar.eus



Babesleak



Gobierno de Navarra Departamento de Educación
Nafarroako Gobernua Hezkuntza Departamentua



Kolaboratzaileak





“Arautzen gaituztenek ez dute sinesten 0-3 zikloa hezkuntza ziklo bat denik”

ELKARRIZKETA: EIDER GARDE

NAFARROAKO 0-3 PLATAFORMAKO ELEDUNA

Erreferentzia da Kattuka haur eskolaren kalitatea eta eredu pedagogikoa Euskal Herrian, Eider Gardek eta bertako hezitzaileek urte luzetan egindako lanagatik. Baita Nafarroako beste hainbat haur eskola ere. Hezitzaileen militantziari zor zaio kalitate hori. Orain geletatik atera eta protesta eta mobilizazioetan murgildu dira 0-3 Nafarroako Plataformarekin batera, duintasun eske: duintasuna eredu pedagogikoan eta duintasuna hezitzaileen lan baldintzetan. Ratioen jaitsiera eta

soldaten igoera dira Plataformaren aldarrikapen nagusiak. Nafarroa osoa ordezkatzeko Plataformak, hezitzaileak ahaldundu eta gutxieneko eskakizunak adostea lortu baitute lurraldeko eremu ugarietako langileek. Plataformako eleduna da Garde. Nafarroako Gobernuak mahai negoziatzaileira deitu eta bi aldarrikapenei erantzun arte greba mugagabe jarraituko dute hezitzaileek. Nekatuta baina babesak dakarren indarrarekin mintzatu da **Hik Hasirekin**.



Grebaren bezperetan egin dio **Hik Hasik** elkarrizketa hau Eider Garderi, eta ondotik, egunez egun, mobilizazioen eta batzarren jarraipena egin du aldizkariak. Grebaren 12. egunean bidali da inprentara aldizkaria. Artean Nafarroako Gobernuak ez du 0-3 Plataformarekin eta NUF Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin mahai negoziatzailea sortu eta ez ditu aintzat hartu Plataformaren aldarrikapenak.

Lehenik eta behin, zer moduz zaudete? Denbora luzea daramazue zuen hezitzaile lanaz gain, protesta eta mobilizazioetan, egoera zailean. Orain, gainera, greba mugagabean. Alde batetik, esan genezake momentuak nekatuta gaudela, baina indar handiarekin gaude. Behingoz, lortu dugu Nafarroa mailan antolatzea eta horrek indar handia ematen du. Orain arte antolatu ditugun langileen batzarretan eta mobilizazioetan babes hori jaso dugu. Plataforma hezitzaileek osatzen dugu, haur eskoletako langileak gara gure zortzi orduko lanaldiez gain plataforma bezala antolatzen garenak. Horrek ikaragarriko esfortzua eskatzen digu. Babes handia jasotzen ari gara eta horrek indarra ematen du. Ez gara lau, hezitzaile asko gara.

Greba mugagabea hastea apustu handia izan da, gogorra alde batetik eta salatu behar dugu haur eskola askotan beldur handia dagoela, eta batzuk ez direla grebara atera lanpostua galtzearen beldur. Borroka neketsua dela jakinda, indartuta gaude aldi berean. Indarra daukagu eta behingoz ahaldundu egin gara, asko kostata. Nafarroa hain da anitza asko kosta zaigula gutxieneko eskakizunak adostea. Baina, era berean, pozik gaude.

Zer moduz daude haur txikiak eta euren familiak? Nola bizi dute bereaiek gatazka hau?

Zonaldearen arabera, familien inplikazioa desberdina ari da izaten. Orokorrean, familiak kontziente dira gure borroka ez dela guretzako bakarrik, argi dute haurtzararen defentsan ari garela eta eskatzen ari garena haurren eta familien mesederako dela, ez soilik hezitzaileon lan baldintzak hobetzearen aldekoa, nahiz eta Nafarroako Gobernuaren desbideratzen saiatzen ari den.

Zuk zeuk esan duzu Nafarroa anitza dela, eta egoerak ere hala direla. 0-3 etaparen kudeaketa Nafarroa osoan berdintsua da edo desberdina da zonaldearen arabera?

0-3aren kudeaketa gehiengo pribatizatua dago Nafarroa osoan. Kudeaketa sistema hau UPN-PSNk 2007ko dekretua argitaratu zutenean ezarritako baldintza maltzurren ondorio da. Baldintza-agiri bat sortu zuten, non enpresa pribatuak hezkuntza proiektu baten bidez eta eskaintza ekonomikoaren bidez lehiatu behar ziren eskola bat kudeatu ahal izateko, hau da, Nafarroan 0-3an lan egin nahi baduzu, aukera nagusia enpresa pribatu bat sortzea eta zure kabuz lanean hastea da. Hori izan zen, adibidez, gure kasua, hemen Kattukan. Hezkuntza proiektu batekin lehiatu ginen eta hautatuak izan ginen momentuan enpresa bat sortu beharra izan genuen. Gure kasuan eskaintza ekonomikoak ez zeukan baliorik hautagaitzan, soilik proiektu pedagogikoa izan zuten kontuan, Udalak hala erabaki zuelako. Baina Erriberan oso ohikoa da eskaintza ekonomiko hobereana duen proiektuari puntu gehiago ematea.

Kudeaketa publikoa izan eta aurrekontu publikoa izanik ere, haur eskoletako langileon hitzarmenak estatu mailakoa izaten jarraitzen du, eta oso-oso prekariora da, langileen estatutuaren parean dagoen hitzarmen bat da. Batzuek badituzte hobekuntza batzuk, bai soldatan bai

lan orduetan, baina ez da orokorra. Nahiz eta enpresa publiko bat izan, ez dauka behar lukeen bermerik, ez hezkuntza baldintzetan eta ezta lan baldintzetan ere.

Horiez gain, badaude Nafar Gobernuarenak diren haur eskolak, Gizarte Politikaren Departamenduan jarraitzen dutenak. Hiru legegintzalditan egin digute promes hauteskunde garaian bost haur eskola horiek Hezkuntza Departamendura pasako direla, baina konpromiso hori ez da gauzatu. Nafarroako Gobernuaren pean dauden bost haur eskola horiek Hezkuntza Departamendura pasatzeko bide horrek beste haur eskola guztiak ere Nafar Gobernuaren Hezkuntza Departamenduari pean egotera pasatzeko atea zabalduko luke.

Diozue Nafarroan "0-3a elitista eta hauteskundeetarako promesa gisa erabiltzen den txanpona" bihurtu dela. Zergatik?

Argi eta garbi. Legez, udal titular-tasuneko haur eskolak gara, udalak dira gure baldintza agiriak argitaratzen dituztenak, edo kontratazioak egiten dituztenak. Zer gertatzen da, orduan? Baldintza agiri horiek Foru Gobernutik datozela, gure soldatak zeintzuk izan behar diren Hezkuntza Departamenduak ezartzen duela; matrikulazio tarifak Hezkuntza Departamenduak ezartzen dituela; matrikula eta aurrematrikula epeak Hezkuntzak ezartzen dituela; unitateen sorreren baimena ere Hezkuntzak ematen duela; gure hezkuntza proiektuen ikuskaritza Hezkuntza Departamenduari pean dagoela... Udalek ez daukate inolako eskumenik, soilik eskumen ekonomikoa, hau da, diru gehiago jarri ala ez erabaki dezakete, euren borondatearen arabera. Udal titular-tasuneko haur eskolak garen arren, udalak salduta daude egoeraren erdian. Edozein aldaketa egin nahi badute, adibidez, matrikula kanpainako epeetan moldaketa bat egin nahi badute, Hezkuntza Departamenduari baimena eta onespina behar dituzte, bestela ezin dituzte aldatu. Maila horretan gaude. Gero, ordea, Hezkuntza Departamenduak plaza-ratzen du 0-3a ez dela bere ardura. Beraien ardura ez bada, zergatik da-

rama PSNk bere akordio programatikoa 0-3aren gaia? Zergatik dago EH Bildu eta PSNren artean sinatu duten aurtengo aurrekontuetarako akordioan 0-3aren kudeaketa? Kea saltzen digute, eta tamalez, askotan biztanleria engainatu egiten dute.

Nola iritsi da egoera puntu honetara? Egin dezagun kronologia apur bat, non dago arazoaren muina? Nafar Gobernuaren 2007ko dekretuan?

Bizi dugun arazoaren muina da arautzen gaituzten politikariek ez dutela sinesten 0-3 zikloa hezkuntza ziklo bat denik. Hortik dator arazoa. 2007ko hezkuntza dekretuak hezkuntza izaera ematen dio 0-3 zikloari, nahiz eta kontziliatzeko ere balio duela nabarmentzen duen, baina 3-6ak edo 6-12ak balio duten bezala; norik uzten du 6 urteko haur bat etxean bakarrik? Guk ez dugu ukatzen gure zikloak kontziliazio lan garrantzitsu bat egiten duenik, baina ezin digute ukatu hezkuntzako zikloa denik ere. Legeak hezkuntza izaera aitortzen digu, eta LOMLOEk orain hezkuntza kutsu hori nabarmendu egiten du, gainera. Baina arazoa da politikariek ez dutela sinesten 0-3 zikloak hezkuntza izaera duenik. Soilik asistentziala den zerbaiten gisan hartzen dute ziklo hau. Badugu kutsu asistentziala, guk zaintzan oinarritzen dugu gure hezkuntza-eredua, baina politikariek ez dute ulertzen nola zaintzatik abiatzen dugun gure hezkuntza eredua. Orain bizi dugun gatazka ezjakintasunaren ondorioa da, puntu honetara iritsi gara arautzen gaituzten politikariek ezjakintasunagatik. Eta okerrena da ez gaituztela entzun ere egin nahi. Etengabe eskatu dugu Hezkuntza kontseilariarekin bildu nahi dugula; gai hau landu nahi dugula; 0-3 Nafarroan ordenatzeko nahia dugula, eta ez gaituzte entzuten, ez gaituzte entzun nahi.

Zuen aldarrikapenetara etorrita, batetik, hezkuntza baldintzak eta bestetik lan baldintzak hobetzea aldarrikatzen duzue zuen grebaren eta protesten bidez. Baldintza pedagogikoei dagokienez, ratioak egokitzeko premia aldarrikatzen duzue. Zein da zuen egoera eta benetako kalitatez-

"Guk zaintzan oinarritzen dugu gure hezkuntza eredua, baina politikariek ez dute ulertzen nola zaintzatik abiatzen dugun gure hezkuntza eredua"

"Europako Batzordeak Haur Hezkuntzako zerbitzuen kalitatea arautzeko ezarriak dituen irizpideen baitan, Nafarroan ditugun ratioen erdia exijitzen du"

"Departamenduak bere langileei soldata igoera bat egin dienean 0-3ko hezitzaileok kanpoan gelditu gara, aldiz, murrizketak egon direnean, gu sartu egin gaituzte murrizketa horietan. Ez da justua"

ko zaintza eta hezkuntza proiektuak garatzeko, zein dira aldarrikatzen dituzuen baldintzak?

Orain plataformak dituen aldarrikapenak sinplifikatu egin ditugu, bateratzeko beharra dagoelako Nafarroa osoan. Ratioen kasuan, Europako Batzordeak Haur Hezkuntzako zerbitzuen kalitatea arautzeko ezarriak dituen irizpideen baitan, Nafarroan ditugun ratioen erdia exijitzen du. Bestalde, behar bereziko haurren identifikazioa eta diagnosis nola gauzatzen ari den Nafarroan lotsagarria da, praktikan 3 urte arte hemen ez zaio gaiari arretarik jartzen, ez bada garuneko min oso agerikoa. Uste dugu 0-3an pedagogia mailan lan prebentibo oso handia egin daitekeela, eta Gobernuak, hori jakinda ere, ez du baliabide nahikoa bidaltzen.

Formazioarekin ere gauza bera gertatzen da: Nafarroako egiturari, ILZren bidez —EAEko Berritzeguneen parekoak— egiten da formazioa. Nafarroan hainbat ILZ daude, Iruñeko ILZn gaude Nafarroako haur eskolen erdia baino gehiago, eta eskaintzen diren formakuntzak 20 pertsonendako dira. Hortaz, ia-ia lehiatu egin behar dugu hezitzaileon artean formakuntza jaso ahal izateko. Lanorduei dagokienez, 1661 lanordu ditugu urtean, administraziopean egiten direnak baino 100 ordu gehiago. Mundu bat litzateke dauden gauza guztiak zerrendatzea. Baina labor esanda, baliabide gehiago behar ditugu, eta bien bitartean, kasik bikoiztu egiten gara gure pedagogia ikuspegia aurrera eraman ahal izateko.

Zuen lan baldintzak, argi esanda, prekarioak dira.

Oso prekarioak. *Mileuristak* gara gutxi gora-behera. Gainera, kasu gehienetan ez da aintzinasuna kobratzen, Hezkuntza Departamenduak bere soldata moduluetan ez duelako aurrikosten antzinasuna. Estatu mailako hizarmena aplikatzen ari zaigu, baina une honetan hori ere ez dute betetzen, beraz, hezitzaileon haserrea ikaragarria da. EAEko gure lankide asko praktikoki gure bikoitza ari dira kobratzen, eta baita Kataluniakoak ere. Nominak eskatu dizkiegu!

2022. urtean gaude, eta soldata-

moduluak ez dira mugitu ere egin 2007tik. Bestalde, Hezkuntza Departamenduak bere langileei soldata igoera bat egin dienean 0-3ko hezitzaileok kanpoan gelditu gara, aldiz, murrizketak egon direnean gu sartu egin gaituzte murrizketa horretan. Ez da justua.

Bestalde, ez dugu inolako osagarririk kobratzen, ez arduragatik, ez pedagogia mailan... eta kontuan izan behar dugu Nafarroan eskakizun pedagogikoak altuak direla. Hezkuntza proiektuak etengabe eguneratuak egon behar dira.

Pobreak gara, sektore feminiziatua, prekarioa, gutxietsia gara. Jardun osoan hezkuntzan lan eginda pobreak gara, nola liteke hori? Hori da beste mespretxuetako bat. Eta gainera, entzun behar izatea kontseilariaren ahotan “Nafarroako 0-3ak kalitate handia” duela eta “oso indartsu” dagoela oso mingarria da, ez dauka ideiarik ere zer den 0-3a Nafarroan, ez baita eskola bakar batean ere egon. Ez du ikusi zein den gure errealitatea, ezta gure zerbitzuko buruak ere.

Berriki, Nafarroak Hezkuntza Departamenduak Haur Hezkuntza 0-6 urte bitarteko zikloaren irakaskuntzetarako foru dekretua osatu du. Haur Hezkuntzako lehen etaparen benetako beharrei erantzuten al die dekretu horrek?

Ez, inola ere ez. 2007ko dekretuak arautzen zuen, dagoeneko, maila curricularrean 0-3a. Kontua da estatu mailako aurreko hezkuntza legeek ez zutela 0-3a hezkuntza ziklo gisa aitortzen, eta orain, lehen aldiz LOMLOEk hala arautzen duelarik, erkidego bakoitza behartua dagoela etapa arautzera, hau da, LOMLOEk ezartzen duenaren baitan bere araudi propioa egin behar du Foru Gobernuak. Guretzat zorianzuekoa da LOMLOEk hezkuntza izaera aitortzea zikloari, zeren Nafarroan eta EAEn kutsu hori izan badugun arren, ez zegoen hala arautua, beraz, 0-3a soilik kutsu asistentzialarekin kudeatu zitekeen. Aurrerantzean ez. Orain, edukietara etorruta, LOMLOEri jarraikiz Nafarroarako idatzi den dekretu berriko edukiek ez daukate inolako zentzurik 0-3ari dagokionez.

Adibidez, konpetentzia digitala ezartzen da adin-tarte honetarako; edo ingelesa txertatzea ahalbidetzen du, PAI eredia 0-1en txertatzea.

Badu guretzako oso arriskutsua izan daitekeen beste paragrafo bat ere: Haur Hezkuntzako bigarren zikloko (3-6) eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan 0-3ko gelak sortu daitezkeela aurreratzen da, edo gutxienez lehen zikloko urte oso bat egin ahal izango dela ikastetxe horietan, hau da, 2 urteko gelak zuritzeko testu bat da dekretuak dakarren paragrafo hori. Argi esan behar da Nafarroako ondare pedagogiko indartsuenetakoa dela 0-3 ziklo osoa mantentzea, eta oso arriskutsua iruditzen zaigu dekretuak ezartzen duen puntu horretan gerta daitekeena. Zein langile egongo liriteke gela horietan lanean? Zein baldintzatan egongo dira haurrak ikastetxe horietan?

Nafarroako haur eskola asko Udala haur eskolak dira, aldiz, argi esan duzun bezala, Nafarroako Hezkuntza Departamenduak erregulatzen ditu neurri handi batean. Udalek, Plataformaren arabera, zer-nolako eskumen eta baliabideak beharko lituzkete egoera hori hobetzeko?

Hasteko, Plataformak defendatzen du udalek jasotzen duten finantzaketak gastu errealari erreparatu beharko liokeela, eta ez Hezkuntza Departamenduak egiten dituen gastu estimazioei. Horrez gain, doakotasuna oso garrantzitsua da. Gaur egun, segun eta Nafarroako zein herritan jaiotzen zaren, eskubidea duzu ala ez haur eskola batean matrikulatzeko. Errentaren arabera ordaintzen da matrikula Nafarroan, ez dago kuota finkorik. Familia batzuek 5 euro ordaindu behar dute euren haurra herriko haur eskolara eramateko, eta aldiz, haur eskola berera etortzeko, ondoko herri bateko haur baten familiak ia 100 euro ordaindu behar ditu. Beraz, familia batzuek ezin dute haurra haur eskolara eraman matrikula prezioa dela-eta. Gure ustez, behar diren baliabide ekonomiko guztiak baliatu beharko liriteke edozein herritako haurrek, herrian ez bada ondoko edo inguruko haur eskolan matrikulatzeko inolako gastu ekonomikorik gabe.

Egoera zailetan, lan baldintza txarretan ere Nafarroako 0-3a haur eskola asko, zer esanik ez Kattuka, erreferenteak zarete Euskal Herrian, aski formatuak eta eredugarriak. Nola azaltzen da hori? Gainera, Carlos Gimeno nabarmendu egiten du zuen kalitate hori.

Gimeno nabarmentzen du bai gure kalitatea, erabili egiten du. Nola azaltzen den? Bada, militantzia hitzarekin. Gure kasuan, eta baita Elizondon ere, esate baterako, oso egoera kaskarretan egin dugu lan, espazio fisiko aldetik oso egoera kaskarretan, gaur egun dauzkagun eraikuntza eder hauen aurretik. Baina gure haurtzaroarekiko ikuspegia oso garbia da. Guk erabakia hartu genuen lehentasuna izan beharko lukeela haurtzaroaren ikuspegia garatzea, eta horri loturiko haurra- ren eta eskolaren irudia garatzea. Hezitzaileok haurrei eskainiko diegun bidelaguntza nolakoa izan behar den oso garbi daukagu, nahiz eta lan baldintzak kaskarrak izan. Gu horretan hezi gara, eta horrela ulertzen da esaten duzun kalitate edo erreferentzialtasun hori. Idatziz zein ahoz egiten ditudan esku-hartze guztietan beti nabarmentzen dut nire lankideen konpromisoa egongo ez balitz, 0-3 hezkuntza proiektua ezingo litzatekeela garatu. Guk talde izaera oso indartsua daukagu eta lan handia egiten dugu koherentzia pedagogikoa mantendu dezagun, beti ere haurtzaro eta eskola eredu horren baitan, eta nik uste dut hori dela indartsu egiten gaituena. Gure kasuan, udalen konpromisoa handia da, eta urteetan laguntza izan dugu. Udalak konbentziturata daude hezkuntza proiektu honek merezi duela.

Hainbat eremutako hezitzaileok bat egiten dugu eredu pedagogikoan eta gure arteko harremana daukagu, alde batetik, **Hik Hasik** batu gaituelako hainbatetan, hala nola Berakoak, Lesakakoak, Elizondokoak edo Iruñeko hainbat haur eskola. Baina Nafarroan bertan badaude beste errealtate batzuk guretzat erabat ezezagunak direnak. Haur eskola batzuetan pantaila digitalak dituzte, gure buruan sekula sartuko ez litzatekeen gauza bat. Bistakoa da haur eskolen errealtatea



0-3 Plataformak maiatzaren 7an Iruñean egin zuen manifestazioko irudia. Eider Garde, Kristina Goñi Elizondoko haur eskolako hezitzailearen ondoan, ezkerreko pankartan.

desberdina dela ekonomikoki lehiatzen diren udalen eta, gurea bezala, lehiatzen ez direnen kasuan.

Greban sartu zarete. Zer aurreikuspen daukazue?

Udal batzuek gutxieneko zerbitzuak ezarri dituzte, kasu batzuetan ehuneko ehunekoak. Era horretan kudeatzaileak onartzen ari dira, ezinbestean, urte osoan maximoetan lanean ari garela; hor aitortza bat egon behar da. Hainbat eskoletan ez da greba eskubidea baliatu, beldurragatik, eta hori ere salagarria da. Ezarri diren gutxieneko zerbitzuak arriskutsuak ere badira: 2-3 urteko 32 haur hezitzaile batekin egotera behartu gaituzte leku batzuetan, 1-2 urteko 24 haurrekin hezitzaile bat eta 0-1eko 12, eta hori salagarria da, noren ardura izango da hor zerbait gertatzen bada?

Plataformak urteak daramatza maila administratibo eta politikoan kontaktuak egiten, gure aldarrikapenak idatziz eta hitzez zabaltzen, beti egin izan dizkigute promesak hauteskunde garaian, baina gero ez dituzte sekula bete promesa horiek. Hezitzaileon haserrea ikaragarria izatera iritsi da eta Hezkuntza Departamenduaren, NUF Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren eta 0-3 Plataformaren artean mahai negoziatzaile bat sortu arte ez gara geldituko, eta horretan indartsu gaude.

“Argi esan behar da Nafarroako ondare pedagogiko indartsuenetakoa dela 0-3 ziklo osoa mantentzea, eta oso arriskutsua iruditzen zaigu dekretuak ezartzen duena”

“Hezkuntza Departamenduaren, NUF Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren eta 0-3 Plataformaren artean mahai negoziatzaile bat sortu arte ez gara geldituko, eta horretan indartsu gaude”

ESPERIENTZIAK

JASO MUSIKALAK HAMAR URTE

Hamar urte ikasleengan “benetan” sinesten

12-16 urte bitarteko gaztetxoekin euskara sustatzeko helburuarekin antzerki musikalean oinarritutako diziplina anitzeko ikuskizun originalak antolatzen ditu urtero Jaso Ikastolak. Aurten, hamargarren urteurrena ospatuko du, Sutan ikuskizunarekin. Gai sozialak ardatz harturik, irakasgai asko lantzen dituzte STEAM metodologiaren bidez, baina, oroz gain, ikasleengan maila pertsonalean eta sozialean duen onura nabarmentzen dute musikalaren koordinatzaileek.

Paperak guztiari eusten dio, eta nonahi irakur dezakegu edonolako proiektu batek STEAM metodologiari jarraitzen diola; edo ikaskuntza-zerbitzuen metodologiaren araberakoa dela; hezkuntza emozionala zaintzen duela; diziplinartekoa dela; parekidea dela; euskaratik egiten dela... eta abar luze bat. Badira, ordea,

proiektu batzuk benetan egikaritzen dituztenak halako baieztapenak. *Jaso musikala* proiektua ezaguturik, helburu zein bitarteko horiek guztiak betetzen direla ikusten da. Ez paperean, oholtzan baizik; edo, are gehiago, oholtzarako bide-prozesuan. Ikusi egiten da, aditu, sumatu proiektuan parte hartu duten ikasleen adierazpenetan: “Pertsonalki, alda-

keta ekarri dit musikalak; esperientzia berriak bizitzea eta lana, baina gustura egindako lana”. “Musikalak neure buruarengan konfiantza izaten eta neure burua ezagutzen lagundu dit. Nire bizitzarekin zer egin ez nekien momentu batean, zentzua eman dio”. “Esperientzia emankorra izan da, gauza asko ikasi ditugu, gauza teknikoak ere bai; aktoreen mundua



ezagutu dugu, abeslarien mundua ere ezagutu dugu, eta arlo pertsonalean, harreman bereziak egin ditugu. Oso ikaskuntza-prozesu berezia dela pentsatzen dut”. Hunkiturik eta eskerturik mintzo dira ikasleak *Jaso musikalak* eman dienaz galdetzean.

Hori guztia hamar urteko prozesuaren emaitza da, goitik begiratuta ikusten dena. Aurten, hamar urte beteko baitira Iruñeko Jaso ikastolak lehen musikala oholtzaratu zuenetik. Baina hastapenak oso xumeak izan ziren, behetik gora, urratsez urrats eraikitako proiektua izan baita *Jaso musikala*. Imanol Janices Gorputz Hezkuntzako irakaslearen buruan hasi zen egosten proiektua, eta Irantzu Zabaltza Lehen Hezkuntzako irakaslearen laguntzarekin ondu da ibilbidea (tartean hainbat irakasle izan dituzte laguntzaile, eta gaur egun, Idoia Asiron irakaslea eta Eva Lopez de la Hoz ikasle ohia ere proiektuaren koordinatzaile dira): “Gorputz Hezkuntzako ikastorduetan, *acrosport* saioak egiten genituen DBHko ikasleekin, taldeetan banandurik akrobazia-koreografiak prestatzen zituzten. Ikasle trebeek talde banatan bereizten nituen, maila artistiko handiena zutenek eta motibatuen zeudenek besteengandik tira egin zezaten. Baina neure buruari galdetu nion: ‘Zer gertatuko litzateke trebeak diren ikasle guztiak elkarrekin jarriko banitu, eta, gainera, ikasgaien motibaziorik ez duten dauden batzuk eta trebeak izan daitezkeenak ere txertatuko banitu motibatuta daudenekin?’”.

Lehen emaitza *acrosport* koreografia luze bat izan zen, DBHko 2. eta 3. mailakoen artean ikastolako areto nagusiko tatamiaren gainean egin zutena, “zegoenarekin” moldatuta; Disneyren pelikula baten egokitza-pen xume bat egin zuten. “Segituan konturatu ginen proiektu honek aukera hezigarri handiak zituela”, dio Janicesek. Eta urratsak egiten hasi ziren, Euskal Herriko areto handietako eszenatokietara eraman dituen ibilbidearen lehen urratsak. Aurten, Islandiara eramango ditu,



nazioarteko antzerki-hezkuntza jardunaldietara.

Akrobaziak bakarrik landu beharrean, ikasleek izan zitzaketen beste gaitasun batzuk uztartzea izan da *Jaso musikala* arrakastara eraman duen gakoa, kantatzeko gaitasuna, dantzarako... baina soinu edo argiztapen teknikarako, gidoiak idazteko edota ikasleen komunikaziorako gaitasunei ere atera diete etekina. “Casting moduko batzuk egin genituen, nahi zuenak parte hartu zezan kantuan, akrobaziak egiten, aktore-lanetan, dantzan... Berehala konturatu ginen oso erreminta garrantzitsua geneukala esku artean, baina baita ere, ohartu ginen, ikastolako aretoa txikiegia zela emanaldiak egiteko”. Lehendabizi, Iruñeko kontserbatorioko antzokian galdetu zuten, ikastolaren ondoan baitago, baina antzokia akustikoa denez, ez zien balio, eta ondoren, Barañaingo auditoriumean galdetu zuten. “Aukerak biderkatu zitzaizkigun han: teknikariak daude, eta azpiegitura profesionala. Berehala, gure ikasleak hango langileekin hasi ziren lanean, kalitatezko azpiegiturarekin. Bat-batean, ikastolako emanaldiko akrobazia berdinek, argiztapenarekin eta soinu profesionalarekin jantztean, musikal itxuroso eta jantziaren forma hartu zuten”. “Emitza oso ederra eta ikusgarria

“Zuk zeuk sortzen duzunean zerbait, inplikatu egiten zara. Eta inplikatzen bazara, ikaskuntza-prozesua gertatu egiten da. Eta hor dago gakoa. Nik uste dut hori izan beharko litzatekeela prozesu pedagogiko guztien egitura. Sortu, zeure sentitu, inplikatu eta ikasi”

Imanol Janices

“Balioetan hezten duen proiektua da musikala”
Irantzu Zabaltza

ESPERIENTZIAK: JASO MUSIKALAK HAMAR URTE



da, baina oso behetik gora egindako lana izan da hamar urte hauetan egin dugun guztia, eta musikal bakoitzaren atzean dagoen prozesu guztia ere urratsez urrats zaindua da”, zehaztu du Zabaltzak.

Ikasleen motibazioa, ikaskuntzarako ardatz

Lehen musikala *Txanpon baten truke* izenekoa izan zen: euskal mitologian eta marinelek baleen ehizara egin beharreko bidaietan murgildu zen ikastetxea. Ikasleen ideietatik abiatutik, irakasleek osatu zuten gidioa; bost mikrofonorekin egin zuten funtzioa, eta 30 foku erabili zituzten. 43 ikaslek hartu zuten parte musikalean. “Hurrengo urtean, pilaka aurkeztu ziren castingera, baina ikusi genuen hiru irakasleren artean ezin genuela 50 pertsonatik gorako taldea kudeatu, eta tamaina horri eutsi diogu orduetik —castingera aurkezten den ikaslerik ez da funtziotik kanpo gelditzen bi urtez jarraian—. Gaur egun, 22 mikro erabiltzen ditugu, ia ehun foku... eta gidioa eurek idazten dute. Dimentsioa asko handitu da”, adierazi du Janicesek. Lan egiteko moldea, ordea, ez da hainbeste aldatu, Zabaltzak kontatu duenez: “Lehendabizi eskola-orduak dira, curriculum eta maila akademikoa besteek bezalaxe jarraitu behar

dute musikaleko hurrek; prestaketak eta entseguak egiteko euren denbora librea baliatzen dute, jolas-torduetan, asteazken arratsaldeetan eta hilabete igande batez”.

Metodo bat eskatu die horrek guztiak; bost lantalde dituzte: multimedia-taldea (gidioa eta gidoi teknikoak idazten dituenak); abeslari eta aktoreena; dantzari eta akrobaten taldea; musikarien eta eszenografiaren eta eszena-tresneriaren taldea. Ikasleek, gainera, euren familiak erakarri dituzte proiektura, eta familien lantaldeak ere antolatu dira atrezzoak sortzeko, jantzitegia atontzeko edo ekarpena egin dezaketen alorretarako.

Prozesua aurrera eramateko metodoa definitzen joan diren neurrian ohartu dira, konpetentzia artistikoez eta teknikoez gain, zientzia-aplikazioak eta beste alor ugariak lantzen ari zirela musikala prestatzen ari ziren neurrian: “Ikuskizun batean pertz batetik kea ateratzeko behar izan genuen izotz lehorra erabiltzeko, adibidez, zientzia-aplikazioak egiten ari ginen; edo ingeniariartzako nozioak behar genituela ikusi genuen, poleak erabiliz eszenografia zintzilikatzeko; atrezzoko lanak egiteko oso beharrezko genituela kalkuluak, neurriak eta matematiketak aplikazioak; gidioa egiten dute-

nek literatura lantzen dutela eta baita sormena ere; gorputz-hezkuntzari loturik, gorputz-adierazpena lantzen dutela, bai dantzan, aktore-lanetan, kantatzen, musikan, akrobazian”, kontatu du Janicesek. Horretarako, STEAM metodologia aplikatzeaz gain, aparteko prestakuntza behar izan dute bai ikasleek eta baita arduradun-lanetan ibili diren irakasleek ere, arazo zehatzei erantzuteko: “Gu geu ere bidean ikasten joan gara. Unean-unean behar izan ditugun prestakuntzak egin izan ditugu, adibidez, teknikariak etortzen dira argiztapenaren diseinuaren inguruko ikastaroak ematera; edo kartelak egiteko prestakuntza jaso dugu, eszenografia egiteko, dantzarako...”

Motibazioa da musikalak egin duen ibilbidearen arrakastaren beste gakoetako bat, behetik gora doan kohete baten moduan. “Ikasleak euren gustuko lantaldeetan sartzen dira. Bakoitzaren gaitasunetatik ikaragarriko motibazioa etortzen da, eta hori da gakoa”, azaldu du Janicesek. “Plataforma bat eskaini diegu ikasleei euren gaitasunak aurrera ateratzeko, eta, askotan, hezkuntzan hori izaten da arazo, irakasleok ez dugula sinesten benetan gure ikasleen gaitasunetan. Guk sinesten badugu, orduan benetan laguntzen diegu”.

Motibaziotik dator lana; motibaziotik dator autonomia, erantzukizuna eta ardurak hartzea, bai eta konpromisoa garatzea ere. Ikasleei zein irakasleei maila pertsonalean “asko” ematen dien proiektua da musikala: “Guretzat gure tripetatik atera den seme-alaba bezala da, eta ikasleek ere euren ume sentitzen dute, hor ikusten da euren motibazioa”, azaldu du Janicesek. Zuk zeuk sortzen duzun zerbait, inplikatu egiten zara. Eta inplikatzeko bazara, ikaskuntza-prozesua gertatu egiten da. Eta hor dago gakoa. Nik uste dut hori izan beharko litzatekeela prozesu pedagogiko guztien egitura. Sortu, zeure sentitu, inplikatu eta ikasi”.

Beste gakoetako bat: kalitatea

Jaso musikalaren hamar urteotako ibilbidearen beste ezaugarrietako bat kalitatea da, edertasuna eta ikusgarritasuna nabarmentzen dira. Ikaskuntza-prozesuari loturik, kalitatearekin lan egiten ikastearen onura nabarmentzen du Janicesek. “Prozesu guztian zehar kalitatearekin lan egiten ikasten dute, bai kartelak egitean, baita eszenografian eta gainerako maila guztietan ere. Horrek balio erantsia ematen dio euren ikaskuntza-prozesuari”.

Kalitate hori nabarmentzen da, baita ere, musikalaren bueltan sortzen diren giza harremanetan. Horiek zaintzeaz arduratzen da, bereziki, Zabalza: “Oso garrantzitsua da harreman aldetik ikastolan sortzen ari garena. Maila guztietako kideak askoz ere gehiago erlazionatzen dira musikala martxan jarri genuenetik, laguntasun handiko harremanak egiten direlako maila desberdinetako kideen artean, eta hori DBH osoan islatzen da”. Arlo pertsonalean ere asko lagundu die ikasleei musikalak, bereziki zailtasunak zituzten ikasleei. “Oso-oso lotsatiak diren ikasleei; gabeziaren bat dutenei, barneko aldaketa bereziak edo prozesuak bizitzen ari direnei; gaitasun handikoei; *bullyinga* bizi izan dutelako beste ikastetxe batetik etorri diren ikasleei... artearen bitartez lagunta-

sun bereziak egiten lagundu die”. Ia gaitza zen lotsa gainditzetik protagonista izatera iritsi diren ikasleen adibidea jarri dute: “Gure aurrean castinga bizkarrez egitetik 1.500 lagunuen aurrean abestera pasa dira”. Nabarmentzekoa da, baita ere, musikalaria esker, mutilek arteekiko zuten ikuspegia aldatu egin dela ikastolako soziologian: “Hemen, musikalean parte hartzea ongi ikusia dago, artea denontzako dela ikusi dute, baita oso profil maskulinoko ikasleek ere”, esan du Janicesek.

“Balioetan hezten duen proiektua da musikala”, nabarmendu du Zabalzak, bai sortzen diren giza harremanengatik, baina baita lantzen dituzten gaiengatik ere. Beti gai sozialak aukeratzen baitituzte, ondoren landu eta taularatzeko. Aukeraturiko gai hori lantzeko unitate didaktikoak prestatzen dituzte, musikala ikustera etorriko diren ikastetxeek aurrez edo ondoren ikastetxean landu ahal izateko. Ikaskuntza-zerbitzuen filosofia dago unitate didaktiko horien atzean. “Ikaskuntza-zerbitzu bat eskaintzen dugu, ikasleek gidoia sortzeko gai sozial bat aukeratzen dugu beti —helburu pedagogiko bat dugulako ikusleentzat—, eta gai sozial horrekin unitate didaktikoak sortzen ditugu; ondoren, musikala ikustera datozen ikastetxeetara zabaltzen dute, aldezturik musikalaria lotuta dagoen gaia landu dezaten”. Iazko musikala, *Ximur*, Alzheimer gaitzaren ingurukoa izan zen, eta

Espainiako Neurologia Elkartearen babesean egin zituzten unitate didaktikoak. Aurtengo musikalak, *Sutan* izenekoak, berriz, genero-parekidetasuna izango du ardatz.

Sorreratik gaur arte, musikalaren helburu nagusietako bat euskarari loturikoa da. “Horrelako esperientzia bat biziz, ongi pasatzen duten esparruetan euskaraz egin dezaketela ikusten dute, eta euren arteko harremanetarako hizkuntza gisa erabiltzen dute”. Euskararen kultur ondarearen erabilera garatzea eta sustatzea ere helburu dute. “Proiektu honekin, etorkizuneko euskal sortzaileak sortzen ari gara, etorkizuneko euskal ekoizleak, eta baita etorkizuneko euskal ikusleak ere”.

Azken emaitzaren ikusgarritasunetik harago, arlo pertsonalean ikasleei eman diena nabarmentzen du Zabalzak proiektutik, eta “sortzeko prozesuan izaten diren hezkuntza-egoeak”. Antzeko hitzak ditu Janicesek musikala gustuko eredu izan dezaketelako ikastetxeentzat: “Prozesu bat dela esanez itxiko nuke solasaldia. Goitik ikusten den guztia oso polita da, baina jaitsi gaitezen: hau prozesu bat da. Ikaskuntza-prozesu handi bat da guztiontzat. Horretara iritsi ahal izateko, lehendabiziko pausoa eman behar da. Bidaiak hainbat pauso ditu. Lehen pausoa norberaren ikastetxeko gimnasioan ikuskizun bat sortzea da, motibatuta dauden ikasleentzat, haiek dituzten trebeziak bultzatuz. Horixe da gakoa”.



EKARPENAK

HAZI HEZIK 10 URTE

HAZI HEZI indaberriturik eta berriturik dator 10. urteurrenean

Haziera eta heziketa aldizkaria eraberriturik dator hamargarren urteurrenean, ikusgarriago eta arinago. Ospakizun jaia egin dute erakundeekin eta elkarteekin Donostiako Aquariumean hilaren 11n eta jai herrikoia egingo dute maiatzaren 29an Adunan.

Hamar urte bete ditu udaberr honetan **Hik Hasi** egitasmo pedagogikoaren **HAZI HEZI** haziera eta heziketa aldizkariak. Urteurren berezi hori ospatzeko, aldizkaria eraberritu dute batetik, eta bestetik, jai bat egin dute maiatzaren 11n Donostiako Aquariumean, erakundeekin, komunikabideekin, kolaboratzaileekin eta harpideekin. Maiatzaren 29an urteurreneko festa irekia egingo dute Adunan, 11:30etan hasita.

Ospakizun-jaiean Ainhoa Azpizotz **HAZI HEZI**ko erredaktoreak gogora ekarri zuenez, Joxe Mari Auzmendi zenaren proiektu kutuna izan zen haziera eta heziketa aldizkaria. “Hamar urteotan hazieran eta heziketan laguntzeko kalitatezko tresna on bat eskaini nahi izan diegu familiei, eta baita hezitzaileei ere. Informazio kontrastatua, kalitatezko profesionalekin landua, eta euskaraz”, erantsi zuen. Ainara Gorostitzu lankideak adierazi zuen aldizkaria garai berrietara egokitzeko beharra izan dutela hamargarren urteurrenean, ohiko izpirituari ez ezik, kalitateari eta harpidetza kuotari eutsiz (urtean lau aldizkari, 20 euroren truke): “Denborak bizkortu egin dira, korrika bizi gara, presaka. Eta horregatik ere, aldatu dugu **HAZI HEZI**. Eraman errazago,



Pituxa clowna **HAZI HEZI** berriaren ale bat eskuetan duela. Argazkiak: Jon Urbe /Foku

arinago, eskurago, ikusgarriago egin nahi izan dugu. Badakigu gure publikoak, hezitzaileek, gurasoek eta zer esanik guraso berriek zer denbora duten, bada, denbora tarte urri horietarako egokitu dugu **HAZI HEZI**”, poltsatik atera eta edozein lekutan irakurtzeko moduko formatu ikusgarriagoan dator, beraz, 40. zenbakia. Baina testuetan ohiko “artisau lana” egiten jarraituko dute. “Pandemiak zailago, korapilatsuago eta konplexuago egin du tribu batena beharko lukeen egitekoa. Tribu modernoa gara gu. Edo izan nahi du behintzat **HAZI HEZI** aldizkariak. Babesa eskaini

nahi dugu, epairik ez, juzkurik ez, dogmarik ez, zamarik ez, errurik ez. Heldulekua baizik. Bidelaguntza. Hori izan da hamar urteotako ibilbide orria. Haurtzaroaren errespetutik, eta zaintzaren ikuspegi feministatik idatzi ditugu alerik ale lerroak. Hori dugu ale berri bakoitzaren aurrean erronka”.

Aurkezpenean parte hartu zuten, halaber, Estitxu Fernandez komunikatzaile eta psikologoak eta Pituxa clownak, eta baita Ihare Gorostizu eta June Imaz **HAZI HEZI**rekin hazi diren kantariek ere. Haiekin eta **HAZI HEZI**ko lantaldearekin izan ziren Gipuzkoako Diputazio-



Komunikabideen babesa jaso zuen haziera eta heziketa aldizkariak: *Hamaika Telebista*, *Hekimen*, *Berria*, *Elhuyar*, *Jakin* eta *Argiarena*, besteak beste.

ko ordezkari gisa Sebas Zurutuza, Kontseiluko Paul Bilbao, OEE Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeko Karlos Ibaguren, Elkarreko Olatz Osa eta Joanmari Larrarte, Hernaniko alkatea Xabier Lertxundi eta Oier Agirresarobe hezkuntza zinegotzia, Adunako alkate Josu Amilibia, *Berriako* Amagoia Mujika, Eider Goenaga eta Ainhoa Oiartzabal, *Jakineko* Lorea Agirre, *Hamaika Telebistako* Iñaki Uria eta Ekhiñe Atorrasagasti, *Elhuyareko* Garazi Andonegi, *Irria* aldizkariko Garazi Urrusolo, *Argiako* Olatz Korta, **HAZI HEZI**ko kolaboratzaileak, Topaguneko, Urtxintxako, Bizipozako, Bai Euskarariko eta Katxiporretako ordezkariak, Alaia Martin eta Erika Lagoma bertsolariak... harpide eta irakurleekin batera.

Adunan irakurleekin eta Porrotx eta Marimototsekin

Maiatzaren 29an **HAZI HEZI**ren hamargarren urteurreneko ospakizun herrikoa egingo dute Adunan. 11:30etan Alaia Martinen bertsoekin hasiko da jaia, ondoren Nerea Mendizabalek guraso eta hezitzaileentzako hitzaldia eskainiko du eta, aldi berean, umeez eskulanak egingo dituzte Alazne Ugartetxea irakaslearekin. Jaia amaitzeko, Porrotxek eta Marimototsek ikuskizuna eskainiko dute bertan.



Aurkezpenean izan ziren Elkarreko Joanmari Larrarte eta Olatz Osa, Kontseiluko Paul Bilbao, Gipuzkoako Diputazioko Sebas Zurutuza eta Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeko Karlos Ibaguren.



HAZI HEZIrekin hazi dira Ihare Gorostizu eta June Imaz. Kantariek eman zioten hasiera ekitaldiari.

EKARPENAK

HEZKUNTZA AKORDIOA

Aniztasuna sustatu, euskal hezkuntza sistema propiorako bidean (I)

Behin EAerako datozen hamarkadetarako hezkuntza oinarriak adostuta, abian da hezkuntza sistema berrantolatuko duen legea artikulatzeko prozesua. Ekarpinak egiteko une garrantzitsu honetan, bi lekutatik begiratu nahi diot gaiari: batetik, edozein gurasoren ikuspegitik (I), eta bestetik, herri izaten jarraitzeko behar dugun hezkuntza-sistema aintzat harturik (II, hurrengo zenbakian argitaratuko da).

Ma bi urteko semea dut, eta aspalditik dabilkit galdera buruan: zer heziketa nahi dut nire semearentzat, eta zer eskatzen diot eskolari?

Argi daukat heziketa batez ere etxean eta gero hurbileko komunitatean gertatzen dela; baina zein da eskolaren zeregina, derrigorrezkoa denez gero?

Hasteko, Rafael Cristobal doktoreak dioenari jarraiki, zalantzarik gabe baieztatu daitezke haurrak gurasoekin jaso dezakeela heziketarik osoena eta egokiena hiru urte bete arte, ez baitu oraindik sozializazioarako premiarik ez gaitasunik. Jakina, ezinbestekoak dira gurasoen prestakuntza eta kontziliazioarako baliabideak. Alta, martxoan onartu den Hezkuntza Hitzarmenean ez da horretaz deus aipatzen.

Hortik aurrera, hauxe eskatzen diot bi hitzetan eskolari: nire semea osotasunean aintzat harturik, bidelagun izatea ingurunearekiko eta bestee-



XABIER SARASUA
Irakaslea
eta Hik Hasiko kidea

kiko harremanean bere gaitasunak ahalik eta gehien garatzeko berezko prozesuan, bizitzarako ahalik eta ondoen presta dadin eta bere kabuz

pentsatzen ikas dezan. Horretarako, bere bizitzako lehen urteetatik pertsonarengan **konfiantza** landuko duen pedagogiaz aritzea eskatzen dut. Izan ere, haziak zuhaitz izateko behar duen guztia bere baitan duen bezalaxe, haurrak ere jaiotzatik bere baitan du izatera iritsiko den nor hori, eta bidea egiteko barne indarra. Hark bezala, ez du askorik behar mundu honi bere benetako ekarpena egitera iritsi dadin: sustraiak errotzeko lurzoru ona (errespetua, konfiantza, maitasuna...), etengabe gorantz abiarazteko argia (edertasuna, egia...), ur bizigarria (barne harmoniari, alaitasunari eta bakeari eusteko eguneroko bizitzako une aberasgarriak), eta airea (ingurune garbiarekiko elkartruke iraunkorra).

Horregatik, ez diot askorik eskatzen eskolari: familiarekin eta komunitatearekiko etengabeko harremana; inklusibo izatea, denontzat egokitu dadin; adin ezberdinekoen arteko elkarrekintza; haurren autonomia eta

autoerregulazioa sustatzea; denborak haurraren erritmoen arabera antolatzeta; naturan eta ingurune erakargarri bezain estimulatzailean heztea; eta haurraren zauriei eta porrotei adi egotea. Azken finean, ikasketa prozesua ongizatean egitea. Eta noski, hori dena egin ahal izan dezaten hezitzaileak prestatu eta zaintzea.

Hitzarmenean, hizki larriz adierazten da ikaslea erdigunean ipiniko dela. Baina zenbat aldiz ez ote dugu hori irakurri! Zer gabeziak eta zeren bilaketak bultzatuta sortu ote dira, bada, adibidez, azken hamarkadetan, eskola libre deitutako ekimen guztiak, nahiz eta jakin hotz handia egiten duela publikotasunaren edo kontzertazioaren labeletik kanpo? Gaur egungo hezkuntza sistemen baitako edozein saretako zein eskolak bermatzen du haurrei beren gaitasunak maila goreneraino gartzten lagunduko diela, aske, euskaldun, komunitateko kide ekintzaile, lankidetzan iaioak eta irizpide propiodunak heziko dituztela, bere buruarengan, bizitzan eta besteengan konfiantza izango dutenak, naturan eta harekin harreman orekatuan bizitzen dakitenak...?

Haurrak ere bai elkarguneak eta beste hainbatek salatu duten bezala, azken bi urteotan inoiz baino argiago ikusi da zeinen esanetara dagoen eskola eta zein den betetzen duen rol nagusietakoa. Haurrak beldurrak eragindako estres emozionalean eduki dituzte, beren hazkunderako hain urte garrantzitsuak diren adinetan, eta ederki transmititu dizkiete obeditu eta bete beharreko hamaika instrukzio: kideekiko distantzia, burbuilak, besteekin ez jolasak ez gauzak partekatzea, 8 orduz sudur-ahoak estalita edukitzea, maisu-maistren eta kideen espresioa eta ahoskatzeko modua ezin ikustea... Eta hori guztia osasunaren eta erantzukizunaren izenean ikasi dute, erruaren itzalpean ikasi ere.

Abian den prozesua benetan eraldatzailea izan dadin, berrikuntzatik harago, erabateko eraldaketa pedagogikoari ekin behar zaio. Eraldaketa hori norabide egokian egiteko, ordea, bokaziozko hezitzaile ororen baitako sen onaren premia



izango dugu, batetik, eta bestetik, zientzia enpirikoaren ekarpenei jaramon egitea (hala nola, psikologia enpirikoari, neurozientziari, eta etologiari). Eraldaketa haurraren begiradatik eta bakoitzaren garapen prozesuarekiko errespetutik hasi beharko da, eta bereziki erreparatu beharko dio bizitzarako oinarrizko gaitasunen garapenari. Eta horretara doitu beharko dira hezitzaileen esku-hartzea, prestakuntza eta komunitatearen parte hartzea ere, eta familiekin eskutik hartuta joan norabide horretan.

Hezkuntza tokian toki eta uanean une sortzen den arte-zeregin bat da, elkartruke bizi bat, eta ez dago horretarako formula magikorik. Administrazioak printzipio nagusi batzuk betetzea, eta herri gisa aurrean dituen erronkei aurre egitea ahalbidetuko duten betebeharrak eta konpromiso batzuk eskatu behar dizkie ikastetxeetako hezkuntza-proiektuei. Baina printzipio eta betebeharrak horiek betez hezteko modu ezberdinak balioetsi eta sustatu behar dira, eta aitortu gurasoek badutela askatasuna eta eskubidea beren seme-alabak hezteko moduarekin koherentzian dagoen eskola hautatzeko eta bertan parte-hartze aktiboa izateko.

Eraldaketa haurraren begiradatik eta bakoitzaren garapen prozesuarekiko errespetutik hasi beharko da, eta bereziki erreparatu beharko dio bizitzarako oinarrizko gaitasunen garapenari. Eta horretara doitu beharko dira hezitzaileen esku-hartzea, prestakuntza eta komunitatearen parte hartzea ere, eta familiekin eskutik hartuta joan.

GRADU ONDOKO BI URTEKO FORMAZIO BERRIA

LEHEN HEZKUNTZA

Badator eraldaketa Lehen Hezkuntzara!

Ikastetxe askotan Haur Hezkuntzako paradigma aldatu egin da, eta haur horiek badatoz goraka... Lehen Hezkuntzan ere benetako premia dago haurraren jakin-minari eta motibazioari erantzungo dioten ikaskuntza prozesuak abian jartzeko. Horretarako, eta benetan kompetentzietan sakontzeko, bidelagun izango den hezitzaile gogoetatsuak tresnak behar ditu.



Informazioa eta matrikulazioa:

ERALDATZEN



▪ Nori zuzendua?

- Lehen Hezkuntzako hezitzaile gogoetatsuei, eraldaketan hasiak edo hasteko gogoz daudenei. Baita aholkulari, zuzendari, ikasketa-buru edota arduradun pedagogikoei ere.

▪ Edukiak:

- Tutore gogoetatsuaren rola.
- 6-12 adin tarteko haurren ezaugarriak.
- Hezkuntza proiektuaren prozesua.
- Espazioen antolaketa.
- Ebaluazio hezigarria.
- Ikaste-prozesuak ulertzen (ikuspegi sozio-erakitzailea, psikologia kognitiboa eta neurozientziaren ekarpenak) .
- Pedagogia sistemikoa.
- Oinarrizko konpetentzietan eta arlokakoetan sakontzea...

▪ Formatzaileak:

- Aritz Larreta (arduradun pedagogikoa)
- Alvaro Beñaran (formazio pertsonala)
- Ane Ablanedo
- Nora Salbotx
- Irene Lopez-Goñi
- David Castrillo
- Elena Laiz
- Marisol Uria
- Neus Sanmartí
- Leire Arana
- Amaia Arroyo
- ...

- Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak homologatutako formazioa da.

- Matrikulazioa zabalik.



GALDEIDAZU

ZERGATIK DA BEHARREZKOA 'EUSKARA AURRERA' EKIMENA?

Ez ditu garai errazak bizi gure hizkuntzak. Ezagutzak gora egin arren erabileraren garapena ez da espero zen martxan egonkortzen eta indartzen ari. Are gehiago, azken datuen arabera, erabileran ere atzerapausoak ematen ari gara. Euskalgintza gai den arren Euskaraldia eta Korrika bezalako herri ekimenak antolatze-ko, kaleetan eta belaunaldi berrien artean ez da euskarari lehengo bultzada emateko energiarik sumatzen. Egoera honetan normala den moduan, gazteon egoerak kezka sortzen du. Ezinegona sortzen dute gazteok euskararekin dugun harremanak, euskararen erabilerak eta euskararen inguruan ditugun ideiek, praktikek nahiz bizipenek. Euskalgintza arrotz ikusten omen dugu, urruti. Ahots propioz hitz egitea komeni, agian.

Gure inguruan egiten den irakurketa argia da. Belaunaldi berriok, gazteok, orain arteko hizkuntza politiken eta euskalgintzak egindako hipotesi eta apustuen fruitu garenok, ez ditugu espektatibak bete. Ez euskalgintzarenak, ez geureak. D ereduak, EITBk, euskarazko irratia, erakunde publikoetako euskara teknikariek... euskararen salbazioa ekarriko dute, herritarrok guri dagokigun erantzukizuna hartuz gero, jakina. "Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek erabiltzen ez dutelako



baizik" esaldia moldatuko genuke: "Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ez ikasi, eta dakitenek erabiltzen ez dutelako soilik". Gure aurrean daukagu aukera, baliatzea besterik ez omen da tokatzen.

Ahots propioz hitz egitea komeni, bai. Gazteon kezka baita, inorena baino gehiago, euskararekin dugun harremana, gure hizkuntza-erabilera eta erabilera horren inguruan dauden gako guztiak. Hala egin genuen azken Euskaraldiaren atarian, Gaztealdia izeneko ariketa praktikoan. Euskal Herriko hainbat

MAIALEN ARTEAGA
'Euskara Aurrera'
ekimeneko kidea



XABAT ILLARREGI
'Euskara Aurrera'
ekimeneko kidea



gazte eta euskara talde batu ginen, tartean, NUPEko Euskara Taldea, Ibaetako Euskara Taldea, Gasteizko Unibertsitateko Euskara Taldea, Iparraldeko Lizeoko Ikasle Asanbladako kideak, Durangoko Berbaro Euskara Taldea, Galdakaoko Bagabiz Euskara Taldea, Arabako Gazte Euskaltzaleen Topaketak antolatzen ibilitako batzuk eta beste batzuk... Bertan ustez, sinplea bezain erraza zen erronka jarri genion gure belaunaldiari: bederatzi egunez euskara hutsean bizitzea. Euskal Herriko hainbat txokotako bederatzi gaztek ariketa horri eutsi zioten bederatzi egunez. Ez genuen erronka lortu, baina, lortu edo ez lortzetik harago, helburu argia zuen ekimenak: euskararen erabilera determinatzen duten faktoreak identifikatzea. Horien inguruan hausnartzea eta determinante horiek guztiak Euskararen Herria eraikitze bidean jartzea.

Logika horretan kokatzen dugu maiatzaren 21eko *Euskara Aurrera* manifestazioa. Bi urte pandemiko bizi ondoren, euskaldunok jasan ditugun erasoaren ugaritzea ikusita, eta behin belaunaldi gisa antolatuta, euskararen borrokara batuta, kaleak hartzeko ordua dela uste dugu. Gazte, heldu, irakasle, guraso, ume, kultur gile, migratzaile... frantsesez, espainolez, euskaraz zein beste edozein hizkuntzatan mintzo, Euskal Herriko etorkizuna euskaraz irudikatzen dugun denon topaleku izan behar du Donostiak hilaren 21ean.

Mehatxu berriak, erronka berriak

Euskal Herria berreuskalduntzeko eta euskara normalizatzeko bidean, mehatxu berriak, eta, beraz, erronka berriak ditugu esku artean. Mundua abiadura bizian ari da eraldatzen. Eraldaketa handiko garaiak bizitzen ari gara. Bizitzako eremu guztietan sumatu daitezke eraldaketa horien ondorioak. Baita, jakina, hizkuntza gutxituen –gure kasuan, euskararen– eremuan ere.

Mehatxu eta erronka berri horiei ezin diegu erantzun soilik XX. mendeko bitartekoekin. Tresna, diskurtso, erreferentzia eta jardunbide berriak behar ditu euskalduntzeak.

Alegia, gure ustez ezinbestekoa da euskalduntze prozesua ikuspegi horietatik guztietatik XXI. mendeko erronketara egokitzea eta bultzada berri bat ematea.

Lehendik eraldaketa handiak bizi bagenituen, mundu mailan zabaldu den COVID-19ak eragindako pandemiak bizkor-gailu gisa jokatu du. Aurretik bazetozen hainbat prozesu azaleratu eta azeleratu ditu. Analisi gehienetan tokirik eman ez bazaio ere, hizkuntza gutxituak berreskuratzeko jardunari nabarmen eragin dio pandemiak. Goitik beherako astinaldia izan da euskalduntze prozesuarentzat: euskararekin kontaktu bakarra eskola zuten milaka hurrei eten egin zaie harreman hori itxialdiaren ondorioz; digitalizazioan eman den jauzi eta bizkortzearen bidez euskarak are eta leku handiagoa galdu du; kulturaren bidez euskaraz sozializatzeko genituen hainbat eta hainbat esparru desagertu egin dira hilabete luzez... Lehen bistan ikusi ez baina arazo larriak ekar ditzaketen zuloak utzi dizkigu horrek guztiak.

Eta hori gutxi balitz, espainiar nahiz frantziar estatuetatik epai, adierazpen eta eraso juridiko-politiko berriak etorri dira azken hilabete hauetan: Nafarroako Gobernuak Nafarroako administrazio publikoko lanpostuetan euskara jakiteari garrantzia murriztea; Ipar Euskal Herrian murgiltze ereduaren inguruko eraso –baita Katalunian ere–; EAEn Auzitegi Nagusiaren ebazpena udaletan aktak euskaraz idaztearen aurka; eskuin zein ezkerreko hainbat espainiar alderdi eta sindikatuk egindako adierazpenak euskararen balioa gutxietsiz...

Zertarako behar du bultzada euskarak?

Euskararen normalizazioak, oro har, euskararen aldeko lanak, behar duen jauzia egiteko. Euskaldun eta euskaltzale guztion ekimenez, denon ekarpenak batuz lortuko dugu euskalduntzeari bultzada berria ematea. Pairatzen dugun atakatik irtengo bagara, eta euskarari etorkizunerako berme bat emango badiegu, gaurko geldialdi egoera irauliko

Tresna, diskurtso, erreferentzia eta jardunbide berriak behar ditu euskalduntzeak. XXI. mendeko erronketara egokitzea eta bultzada berri bat ematea.

duen jauzia ezinbestekoa da.

1. Euskararen eta euskaldunon aurkako erasoerantzuteko. Mendekotasun egoeran jarraituko dugun bitartean, euskararen normalizazioaren aurkako estatuen esku-hartzea iraunkorra izango da eta gero eta erasokorragoa. Hori dela eta, euskalduntzeari lotutako auziez erabakitzea soilik euskal herritarroei dagokigunez, euskaldunok ere aurrera egin behar dugu hizkuntza politika burujabea garatzeko.
2. Gure hizkuntza eskubideen defentsan eta euskararen estatus egokia eskuratzeko bidean aurrera egiteko. Hizkuntza eskubideak ere giza eskubideak dira, ondorioz eskubide unibertsalak, urratu ezinak, hitzun bakoitzari atxikitzen zaizkionak eta botere publikoek bermatu beharrekoak dira. Eskubide guztiek pertsona guztientzat izan behar dute, baita hizkuntza eskubideek ere. Beraz, euskaldunon hizkuntza eskubideak aitortzea demokrazia eta justizia kontua ere bada. Hori oinarritzkoa da Euskal Herria berdintasunean, kohesio sozialean eta askatasunean eraikitzeko. Eta horrela izan dadin, besteak beste, legedian hizkuntza eskubideak behar bezala aintzat hartu eta euskararen estatusaren onarpen egokia jaso beharra dagoela aldarrikatzen dugu.
3. Euskal Herrian jaiotako oraingo belaunaldi berriei eta

Abian jarri dugun egitasmoa guztiona izatea nahi dugu. Dagoeneko euskaldun diren guztiena. Baina, baita, egun euskaldun izan ez, baina haien etorkizuna euskaraz irudikatzen duten guztiena ere.



etorkizunekoei haien herriko hizkuntza, euskal kultura eta euskaltzetasuna transmititzeko. Euskara bere egin eta erabili, aberastu, bihurritu, moldatu, joriago eta gozagarri bihurtu eta etorkizunera proiektatu dezaten.

4. Edonon jaiota ere gurekin batera bizitzera etorritako euskal herritarrei euskararen ezagutza eta euskal kultura emateko, eta, aldi berean, haien hizkuntza eta kulturetatik ikasteko. Elkartasunean elkar aberrasteko azken batean. Herri kohesionatua eraiki dezagun, hizkuntza komuna euskara izanik.
5. Euskaraz bizi nahia egingarri izateko. Euskaldun gisa bizi ahal izateko. Gure iraganari etorkizun oparora eskaintzeko. Euskal Herria herri euskalduna izateko. Munduari gure kulturaren eta hizkuntzaren hondar alea eskaini ahal izateko. Hizkuntzen, hizkuntza-komunitateen eta herrien berdintasunean oinarritutako mundua eraikitzeko. Guztion hizkuntza eskubideak errespetatzeko gai izango den herria osatzeko. Euskararen bidez, herri kohesiorako zuntza eskaintzeko. Mugaz gaindi, hango eta hemengo euskaldunak batzen gaituen hizkuntza normalizatzen.

Guztiona, guztiontzat

“Euskara aurrera” manifestazioa aurkeztu genuenean, ozen adierazi genuen ekimena ahalik eta herritar gehienena izatea nahi genuela. Horregatik, ordutik hona proposamena euskalgintzako eragile nahiz bestelako hainbat gizarte eragilerekin partekatu dugu. Gainera, parte hartzea sustatzeko eta informazioa partekatzeko, honako bi tresnak ere jarri ditugu martxan:

- <https://t.me/EuskaraAurrera>

Telegram kanala. Ekimenaren berri izan nahi duen orok informazioa eta bitartekoak eskuragai izan ditzan.

- Eta norbanakoen atxikimenduak biltzeko <http://labur.eus/euskaraaurrera> helbidean ere horretarako aukera ireki dugu.

Euskarak guztion beharra du. Abian jarri dugun egitasmoa guztiona izatea nahi dugu. Dagoeneko euskaldun diren guztiena. Baina, baita, egun euskaldun izan ez, baina haien etorkizuna euskaraz irudikatzen duten guztiena ere. Horiei guztiei gonbidapena egiten diegu aipatu bi tresna horiek baliatzeko eta maiatzaren 21ean Donostian egingo dugun mobilizazioan parte hartzeko.

Elkarlanaren beharra

Euskara aurrera mobilizazioa proposatu dugun kideok bat gatoz ideia honekin: euskarak jauzi bat behar du. XX. mendean hizkuntza berreskuratzeko prozesu eredu

bat sustatu ondoren, XXI. mendean euskarak ez du etorkizuna bermaturik. Horregatik diogu euskarak jauzi bat behar duela.

Garai honetara euskara bizirik iritsi bada milaka herritarren ahalegin eta konpromisoagatik izan da: euskaraz ikasteko aukera ireki zuten haiena, euskaraz ikastera animatu ziren haiena, euskaldundu diren horiena, euskaraz idazteko hautua egin duten horiena, debekuen aurrean transmisioa bermatu zuten horiena, eredu estandarra sustatu zuten horiena, euskalgintzaren bueltan antolatu diren horiena, euskaraz jakin ez arren haien seme-alabak euskaldundu daitezten euskarazko hezkuntzan matrikulatu dituzten horiena...

Orain euskarak beste jauzi bat behar du. Euskarak aurrera egingo badu euskalgintza antolatu, indartsu eta eraberritu bat behar dugu. Euskarak aurrera egingo badu euskalgintzaren eta gainerako eragile sozialen arteko elkarlana behar dugu. Euskarak aurrera egingo badu herritarren eta euskalgintzaren arteko konplizitatea biderkatu beharko da. Euskarak aurrera egingo badu administrazio publikoan ardurak dituztenek ere konpromisoak hartu eta ekinbide berriak martxan jarri beharko dituzte.

Bakoitzak beretik. Bakoitzak bere indar alea jartzeko unea da, euskararen aldeko borroka fase berri batean sartzekoa. Herri bultzada berri eta indartsu bat emateko garaia da.

ARGITALPENAK



ZORRI ZORAGARRIAK

Uxue Alberdi – Ainara Azpiazu

ELKAR

Xixili ez dago sekula bakarrik: adin, itxura, lanbide eta jatorri ugari-ko zorriak elikatzen ditu bere buruak. Egun batean, ordea, eskolatik ohar batekin itzuliko da: Kontuz, zorriak! Eta arriskuan izango dira ipuinak kontatzen dizkieten buruko maizterrak. Betidanik mundo osoko andre eta gizonen buruetan bizi izan dira zorriak...



DESKONEKTATUTA

Miriam Tirado – Joan Turu

CARAMBUCO

Familia bateko kideek egunaren zati handi bat pantailari begira igarotzen dute eta, oharkabean, haien arteko deskonexioa areagotu egiten da. Nola lortuko dute berriro elkarren arteko konexioa eta lotura? Gurasoak arduratuko dira seme-alabei egoera ulertarazteaz, mugak jartzeaz eta pantailen erabileraren egokia lortzeaz.



OHARRA

Pilar Serrano Burgos – Daniel Montero Galán

KALANDRAKA-PAMIELA

Akordeoi formatuan aurkeztutako liburua da eta zabaltzean, auzoko bizilagun bakoitza ezagutuko dugu. Oharrak eskuz esku bidaiatuko du auzo alai bateko bizilagunak harriz. Kontakizun atsegina da, komunikatzera eta afektuak eta emozioak adieraztera bultzatzen gaituena irakurri ahala.



BIHURRIKERIAK SABIKAN

Gerardo Fabián Cosenza

SAURE

Yusuf printze gaztea Granadan mendeetan nagusi izan zen leinu handiaren ondorengoa da. Goós-ek hezi du Yusuf eta bien eskutik, hamalagarren mendeko hainbat abentura ezagutzeko aukera ematen du liburuak, Granadako Erresumatik, Al-Andalusetik eta Europatik bidaiatuz.




IRUDIZ ETA EUSKARAZ. GURE HIZKUNTZAREN ZINEMA. GURE ZINEMAREN HIZKUNTZA

Josu Martínez Martínez

UEU

Gaurdaino ez da idatzi euskarazko zinemaren historiari eta lan honek hutsune hori bete nahi du. Zinemak euskararekin izandako harremanak aztertzen ditu liburuak eta film eta egile ezezagun ugari aurkitzen dira orrialdeotan.



HIZKIEN ALDE MANIFESTUA

Goiatz Labandibar Arbelaiz – Iñaki Zapirain Retegi

DENON ARTEAN

'Hizkien Alde', haurrentzako irakurketaren eta idazketaren aldeko manifestua da. Zer da idazle izatea? Zer da irakurle izatea? Zein da idazlea? Zein irakurlea? Hausnarketak horiek biltzen ditu liburuak. Hainbat printzipio eta asmoren bilduma da liburua.

PROPOSAMENA

Olarizuko lorategi botanikoa

Europako basoak Gasteizko lurretan

Gasteizko hegoaldean dago Olarizuko lorategi botanikoa, hiria inguratzen duen Eraztun Berdearen barnean. Euskal Herritik mugitu gabe, Europako iparraldetik Hegoalderako bidaiak egiteko aukera ematen du lorategiak. Izan ere, Europako basoetako 900 landare-espezie baino gehiago ikus daitezke, 70 hektareatan banatuta. Urtero inguru horretan ospatzen den erromeriak egin du, batez ere, ezagun Olarizu, baina urteko edozein egunetan gozatzeko aukera eskaintzen du parkeak.

Zazpi parkek osatzen dute Gasteiz inguratzen duen Eraztun Berdea, eta Olarizuko lorategi botanikoa da horietako bat. Gasteiztarrentzat, parke ezaguna izan da beti, urtero erromeria egiten delako eta edozein egunpasa egiteko edota paseo bat ematera joateko toki aproposa delako. Gasteizko Udaleko Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko teknikariek, Irati Lekuonak eta Moises Ruiz de Azuak, eman digute lorategiaren berri. “2009tik aurrera, lorategia zabaltzen joan da. Lehendik zeuden guneak, hariztia eta larreak, bere horretan utzi zituzten, eta espezie berriak landatzen hasi ziren. Lorategi gaztea da oraindik, baina oso nabaria da jada zuhaitzak hazten ari direla”, aipatu du Lekuonak.

Garai batean, hango larreak ganaduarentzako bazkalekuak ziren, eta ukuilu modura eraiki zuten Olarizuko etxaldea, 1727an. Gerora, biltegi gisa erabili zuten hainbat urtez, eta,

gaur egun, lorategi botanikoaren egoitza zientifikoa dela esan liteke. Hantxe dago germoplasma-bankua ere. Espezie mehatxatuen eta espezie endemikoen haziak gordetzen dituen laborategia da germoplasma-bankua. Haziak tenperatura eta hezetasun-maila jakin batzuetan gordetzen dituzte han, gerora berri-

ro ere landatu eta ernamuindu ahal izateko.

Europako ehunka landare bildu dituzte Olarizuko lorategi botanikoan: 900 espezie inguru daude, eta 50.000 aletik gora. Bost eremu ditu, eta Europako bioma bakoitzean modu naturalean hazten diren zuhaitzak eta landareak aurkitu





daitezke eremu bakoitzean:

- 1) Mediterraneoko basoak eta sastrakadiak.
- 2) Mediterraneo azpiko baso epelak.
- 3) Baso epelak.
- 4) Baso borealak.
- 5) Goi-mendiko basoak eta sastrakadiak.


Horrez gain, landaredi urtarra bil-tzen duen lakua eta muino txiki bat ere baditu. Muino horretan, Arabako lautadako muinoetan aurkitu daitekeen landarediaren lagin bat jarri dute. Muinoaren goiko aldean behatokia dago eta parke osoa ikus daiteke bertatik. Orkidea eta geofitoen belardiak osatzen du parkea.

Jende ororentzat zabalik

Parke irekia da, eta nahieran eza-gutu daiteke Olarizuko lorategi botanikoa. Programa irekia dute, eta hainbat jarduera eskaintzen dituzte, asteburuetan batez ere: lantegiak, bisitak, familientzako jarduerak...

Ikastetxeentzako hezkuntza programa bat ere badute, eta lau jarduera eskaintzen dituzte: “Helburua: landareak aurkitzea” (LHko 5. eta 6. mailak), “Altxorraren bila Europako basoetan zehar” (LHko 3. eta 4. mailak), “Europako basoak: baso mediterranea” (DBHko 1. eta 2. mailak), “Germoplasma-bankua: bizitza aurrezten etorkizunerako” (DBHko 3. eta 4. mailak). Jarduera horien guztien helburu nagusia Europako landareak ezagutaraztea eta kontzientzia ekologikoa piztea da. Aurrera begira, Haur Hezkuntzarako jardueraren bat sortzeko asmoa ere badute.

Ruiz de Azuak aipatu du, bestalde, datozen urteetan landare erabilgarrien bilduma egiteko asmoa dutela: “Gizakiaren eta landareen arteko harremana aztertuko duen bilduma izango da. Eta hainbat gauzatarako erabil daitezkeen landareak sartuko ditugu: papera egiteko balio dutenak, sendabelarrak... Lorategi itxu-



Olarizuko lorategi botanikoa

Olarizuko etxaldea, z/g
01006 Gasteiz (Araba)
www.vitoria-gasteiz.org/lorategibotanikoa
945 16 26 96

Hezkuntza programa

- Helburua: landareak aurkitzea (LHko 5. eta 6. mailak).
- Altxorraren bila Europako basoetan zehar (LHko 3. eta 4. mailak).
- Europako basoak: baso mediterranea (DBHko 1. eta 2. mailak).
- Germoplasma-bankua: bizitza aurrezten etorkizunerako (DBHko 3. eta 4. mailak).

Jarduera bakoitzak bere unitate didaktikoa du.

Internet bidez eskuratu daitezke.

Iraupena: 2-3 ordu.

Garaia: jarduera guztiak otsailetik ekainera bitartean egiten dira. Aldez aurretik zehaztutako egunetan egin daitezke jarduerak.

Izen-ematea: irailetik aurrera egiten da webgunearen bidez. Gasteizko ikastetxeek izaten dute lehentasuna.

ra izango du, leku polita izatea nahi dugulako, eta baliabide hezitzaileak izango ditu”. Urtero sartzen dituzte espezie berriak lorategi botanikoan, eta aurrerantzean ere, etengabe ugaritzen joango dira Olarizuko zuhaitzak eta landareak.

ATZEKO ATETIK



EUSKARA: GURE KULTURA, GURE ARDURA

NAROA IGLESIAS LOBO

IES MUSKIZ BHIKO BATXILERGOKO
1. MAILAKO IKASLEA

Kultura, historia, bizimodua. Nahiak, beharrak, sentimenduak. Hauxe da hizkuntza: inguratzen gaituen guztia izendatzea eta, horren bidez, mendeetan zehar komunikatzea ahalbidetu izan duen tresnarik baliagarriena. Belaunaldiak joan eta belaunaldiak etorri, askotariko bizierak eta ohiturak garatu ziren planetako toki guztietan zehar, eta, horrekin batera, hizkuntza anitz sortu ziren. Gurean, euskara agertu zen, euskaldunon hizkuntza, askorentzat munduko ederrena dena.

Euskara Euskal Herrian hitz egiten den berezko hizkuntza da, Euskal Herriko biztanleei harrotasun-sentimendu itzela sorrarazten diena. Baina hari eutsi nahian, sekulako arazo larri batekin topatu dira: hizkuntza kolonizatzaileekin. Horien adibide argi ditugu ingelesa eta gaztelania, mundu osoan zehar hedatu direnak. Nor ez da noizbait ingeleseko akademia batean izan? Edo nork ez du, gaztelania-

ren erruz, euskara alde batera utzi uneren batean? Harrigarria iruditzen arren, hizkuntza horiek euskara bezalakoak ziren hasieran, eta haien mesederako, mundura zabaldu ziren kolonizazioaren eskutik. Horrek hizkuntza askoren murrizketa edo erabateko desagertzea ekarri zuen, eta, horren ondorioz, hizkuntza kopurua jaisten joan zen pixkanaka.

Egunen batean, esnatu eta euskara amaitua izango den beldur gara euskaldunok. Askoren ustez, gure hizkuntzak praktikotasuna galdu du, eta horregatik, jendeak ez du hura ikasi edo erabili nahi izaten. Euskal Herritik at ez da hitz egiten, eta gure artean, gero eta gutxiago erabiltzen da; beraz, euskararen bidezko komunikazioa oztokatzen da. Aipatu dudanez, gaztelaniaren hedapen ikaragarriaren erruz, gure hizkuntza galtzen ari da, eta nork ikasiko luke desagertzeko zorian dagoen hizkuntza bat, gero ez bada erabiltzen?

Gutariko askok horrela pentsatu izan dugu noizbait, eta nik hor barruan sartu beharra daukat, eskolan gero eta gutxiago erabiltzen baitut euskara eta eskolatik kanpo ere ez baitut inoiz erabiltzen. Gainera, familia erdalduna izateak eta Euskal Herritik kanpo bizitzeak zailtzen du hizkuntza erabiltzea sarritan. Eskolan ere, galtzen ari da euskal giroa; alde batetik, ordu askotan beste hizkuntza bat hitz egiteak hizkuntza aldatu nahi ez izatea eragiten du; eta, bestetik, besteek gaztelaniaz hitz egiteak guk ere berdin jokatzera bultzatzen gaitu.

Argi dago euskara zabaldu egin behar dugula hizkuntza-aniztasunari eutsi ahal izateko eta gure kultura paregabea kontserbatzeko. Aldaketa txikien bidez lortu dezakegu hori, adibidez, egunero euskaraz hitz egiten dugun ordu kopurua pixkanaka handituz edota dendetan euskaraz hitz egiten saiatuz.

Nik euskaraz egingo dut. Zuk, zergatik ez?

HAZIERA ETA HEZIKETA ALDIZKARIA

Hazi Hezi

OSPATZEKO GARAIA DA!

10
urte

www.hikhasi.eus

UDAKO TOPAKETAK 2022

Uztailak 4, 5 eta 6, Donostian



hh
hik hasi

Unibertsitatea
El País Vasco

Eusko Herriko
Unibertsitatea

ELKIDE MARIKATUAK
GOBERNATZEN DUGU

Unibertsitatea
El País Vasco

Unibertsitatea
El País Vasco

Ikastaroak:

Lehen Hezkuntza eraldatzen | Argiaren pedagogia | Neurosiaren prebentzioa bizitzaren hasieran | Pintura, buztina eta mugimenduen bidezko espresioa | Haurtzaroen bidelagun Montessoriren ikuspegitik | Jolastokia, eskolako espazioa? | Mugak jarri autoestimua zainduz | Natura eskura | Hausnarketa lantzen elkarrikeria kooperatiboaren bidez | Heziketa eta astrologia psikologikoa: iraultza pedagogiko bat | Heriotzaren lanketa | Dislexia | Entrenamendu mentalaz eta ametsak aztertuz, zoriotsu! | Euskara bereganatzea Haur Hezkuntzan | Irakasle berritsuak Lehen Hezkuntzan | Nerabeei hizkuntza-sozializazioan laguntzearen erronka | Sortuz eta sortuz, kontatu | Eskola kirola gogoeta kolektiborako tresna | Sormenean hezi, kultura bizi | Irakaslearen lanketa pertsonala | Zaintza guneak: norbera zainduz, bestea zaindu | Yoga eta kontzentrazio teknikak eskolan | Zirimiri: oinarriko yoga teknikak ikasgelatan ongizatea lantzeko | Neuroludokinesia | Antzerki teknikak: hezkuntzarako tresna pedagogikoa | Familiaren eta eskolaren arteko elkarlana ikuspegi sistemikotik | Zuzendaritzarako formakuntza sistemikoa | Bizitzaren eta bizitzarako pedagogia sistemikoa | Gamifikatu... eta irabazi! | Matematika eskuetan, goazen jolastera! | Fisikaren eta Kimikaren ikaskuntzan IKD13 eredu.

www.hikhasi.eus